



Emakumion Etxea eraikitzeko parte-hartze prozesu irekia

MARTXAN



Martxan da Oñatiko Emakumion Etxia eraikitzeko parte-hartze prozesu irekia


Eltzian egindako Topaketa batekin abiatu dute Kalezaharra kaleko 13. zenbakidun eraikinaren edukiaren eta kudeaketa ereduaren inguruko hausnarketa eta zehazte prozesua

Ekitaldian adierazi bezala, ez da hutsetik hasitako egitasmoa: 2020an burututako diagnostikoa du oinarri, eta azken hilabeteetan udalean ordezkaritza duten alderdi politikoen arteko elkarriketan adostu da abiapuntua: lau printzipio gidari, hiru konpromiso eta lau erronka. Denak eztabaidagarriak, baina denak landuak eta adostuak.



PRINTZPIO GIDARIAK

- Feminista
- Interseksionala
- Komunitarioa
- Ahalduntzailea



KONPROMISOAK

- Proiektua martxan jartzeko beharrezko baliabide pertsonal eta ekonomikoak eskaintzea
- Aniztasuna kudeatzeko tresna egokiak eskaintzea
- Parte hartze prozesu zaindua eskaintzea



garmendia tejas

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

www.garmendiatejas.com



ERRONKAK

- Udalak eta herriko eragile eta norbaiten arteko lankidetzatik eraikitako espazioa sortzea
- Udalaren eta herritarren beharrak aseko dituen espazioa
- Herriko bestelako proiektuekin osagarria izango den ekimena
- Herriko emakume guztiei irekia

EMAKUME ETXE EZBERDINETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTZEKO BISITAK



Gipuzkoako Emakumeen Etxeen mapa

Ezer erabakitzen hasi aurretik, beste emakume etxe batzuetako esperientziak bertatik bertara ezagutzea interesgarria eta lagungarria izan daitekeenez, bisitak antolatu dituzte Gipuzkoako emakume etxe ezberdinetara. Hala, **azaroaren 4an** Zumaia eta Azpeitia joango dira, eta **azaroaren 18an** Hernani eta Donostiakoak ezagutuko dituzte.

IZENA EMATEKO

Baterako zein besterako, 15:30etan irtengo da autobusa Oñatitik, eta izen-ematea irekita dago **berdintasuna@onati.eus** helbidean edo **688 621 213** zenbakira whatsapp mezua bidalita.

OÑATIKO EMAKUMION ETXIA. BEHARREZ ETA INBERTSIOEZ.



Egitasmoaren oinarrian da beharren identifikazio partekatua. Eta Udalak argi du zeintzuk diren haren beharrak. 2015ean sortu zen Berdintasun Departamentua, eta, orduetik, aurrera-pauso nabarmenak eman dira emakumeen ahalduztzearen eremuan eta indarkeriaren arretan eta prebentzioan.

Besteren artean, herriko espazio eta lokal ezberdinetan hasi diren proiektuak handituz joan dira azken urteotan, eta espazio-muga argiarekin egin dute topo. Egun martxan dauden egitasmoak behar moduan garatzeko, Berdintasun Departamentuak identifikatu dituen behar guztiei era egokian erantzuteko, eta etor daitezkeen proposamenei lekua egin zein aukera ezberdinei bide emateko, leku bat behar da: horretarako lekua falta zaio. Berdintasunak, espazio bat behar du. Teilatupe bat behar da berdintasun politiken eraginkortasuna eta garapena bermatzeko.

Horiek moduko beste proiektuak bezalaxe, inbertsio ekonomikoa eskatuko du. Baina, ez da horra mugatuko. Maila ekonomikotik haragoko inbertsioa izango da: aldatzen doan jendarte eredu honetan, elkartzeko, elkarlanerako, babeserako, eskainiriko espazio bat izango da. Eta, hari esker, krisi eta desazkunde garaian berebizikoak izango diren ekipamenduak izango ditu Oñatik.

Finen, ekipamendu feminista komunitarioa eraiki nahi dugu bakarrik dauden emakumeentzat, nora jo ez dakitenentzat, taldea behar dutenentzat, antolatu, eragin, eztabaidatu edo pentsatu nahi dutenentzat, babesa behar dutenentzat... Guztiontzat.

Ongi etorriak izango zarete.

Izaro Elorza Arregi / Alkatea

EMAKUMEEN ETXEAK: ZERGATIK ETA ZERTARAKO?

Betidanik elkartzeko espazio propioak behar izan ditugu emakumeok, gure ahotsak entzun ahal izateko, libre azaltzeko gure kezak, gure bizipenak konpartitzeko. Espazio hauek behar ditugu gure eskubideak errebindikatzeko, berdintasunean bizitzeko, gizartea eraldatzeko. Aurrerapenak lortu ditugu, bai, baina adi egon behar gara, lorpen horiek, eskubide horiek, beti galtzeko arriskuan daude eta.

Etxe hau zertarako behar dugun? Bada, gure inguruko emakumeak ezagutzeko, lagunak, bizilagunak, elkartekideak, ezezagunak, hemengoak eta hangoak, gazteak eta adinekoak, gu bezalakoak eta antzekoak ez direnak... Gure herriaren aniztasuna ospatzeko, jatorriz eta hiltun ezberdinen artean komunikatzeko modu bat topatzeko, euskara babesten dugun bitartean.

Gaurko mundu globalizatuan, egoera oso desberdinak bizi ditugu emakumeok, baina gauza asko konpartitzen ditugu. Individualismoa eta fragmentazioaren kontra elkarrekin egin behar dugu, elkarrengandik indartuz, sareak ehunduz. Elkarrekin, geure burua zaintzeko aukera dugu, osasungarria baita besteekin aritzea. Etxearen lehioak eta ateak zabaltzen direnean, bide emango digu energia berritzeko, inspiratzeko, burua aireztatzeko. Eta azkenik, elkarrekin gozatzeko; Plazerra ere politikoa da eta.

Maggie bullen eta Carmen Diez

EHUko Antropologia Feminista Ikerketa taldeko kideak

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
 - Lentzeria
 - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale



Mireia
Iramira



Asier
Urrutia



Amaia
Dietista, nutrizionista



1 "Beldur handia ematen didate sugeek; fobia dier"



2 "Presaka, erosketa atean utzi nuen behin eta jasotzera joan nintzenean, katuak janda zeukan arrain poltsa"



3 "Zuzeneko kontzertuetara joatea gustatzen zait"

Jolastu, lotu
eta dendariak
ezagutu

Bete itzazu alboko hutsuneak.
Erantzun zuzenak,
hilean zehar publikatuko ditugu sare sozialetan.

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2023/2024

Bozkatu eta erabakitzeke unea iritsi da

» 2023/2024 Partaidetzazko Aurrekontuen prozesua bozketa fasera iritsi da. » Azken fase honetara heldu diren 21 proposamenen artean aukeratzeko ordua da. » Herritar bakoitzak 6 proposamen hautatu behar ditu. » Boto gehien jasotzen dituzten proiektuak (500.000 €-ak agortu arte) 2023 eta 2024 urteetako udal aurrekontuetan txertatuko dira



Udal aurrekontuetako 500.000 euro zertan inbertitu erabakitzeke partaidetzazko prozesua azken fasera iritsi da, bozketa fasera, alegia.

Gogoratu, maiatzean jarri zela martxan prozesua. Maiatzaren 6tik 27ra herritarren proposamenak jasotzeko epera ireki zen. Guztira 230 proposamen jaso ziren, eta aurrez ezarritako baldintzak betetzen ote zituzten aztertu ondoren, 76 proposamenek egin zuten aurrera. Maiatzaren 30etik ekainaren 17ra proposamenak lehenesteko ariketa egin zen. Herritarrei zuzendutako bi saio ireki egin ziren ekainaren 7an eta 9an. Proposamen bakoitzaren balorazioa egin ostean, 54 igaro ziren balorazio teknikoko fasera. Ekainaren 20tik irailaren 16ra udal teknikariek egin zuten proposamen bakoitzaren bideragarritasun azterketa, eta, azkenik, 21 proposamen igaro dira bozkea fasera, eta orain herritarroi dagokigu horien artean aukeratzeara.

NOIZ ETA NOLA BOZKATU

Azaroaren 4tik 20ra eman ahal izango dugu bozka, eta horretarako hiru bide egongo dira:

- **Online:** udal webgunearen (www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak) bidez. Proiektuak kontsultatzeko aukera ere badago bertan.
- **Postontzietan:** udal eraikin publikoetan eta bestelako ohiko tokietan (udaletxea, kultur etxea, kiroldegia, gaztelekua, Pake Leku, Eltzia...) ipiniko diren kutxetan boto-papera sartuz.
- **Erakusketa ibiltaria:** Ondorengo egunetan jarriko den erakusketara gerturatuta.
 - **AZAROAK 8**, goizez, San Lorentzo-Olakuan
 - **AZAROAK 11 eta 16**, arratsaldeaz, Foruen plazan
 - **AZAROAK 18**, goizez, Kale Barrian

Azaroaren 4an 16 urte beteta dituzten herritarrek soilik parte hartu ahal izango dute bozketan eta derrigorrezkoa izango da datu pertsonalak betetzea, bozka baliagarria izateko. Proposamen guztien artean 6 gustukoenak aukeratu behar dira, nahitaez. Gehiago edo gutxiago markatuz gero, bozkek ez du baliorik izango.

Boto gehien jasotzen dituzten proiektuak (beto ere 500.000€-ak agortu arte), 2023 eta 2024ko Udal Aurrekontuetan txertatuko dira. Ondoko orrietan daude ikusgai bozketa fasera igaro diren 21 proposamenak hiru multzotan banatuta, aurrekontuaren arabera.

Azaroaren 4tik 20ra bitartean eman ahal izango dira bozkek, udalaren webgunean, eraikin publikoetan ipiniko diren kutxetan, edo zenbait egunetan egingo den erakusketa ibiltarira gerturatuta

16 urtetik gorako herritarrek soilik bozkatu ahal izango dute. Proposamen guztien artean 6 gustukoenak aukeratu behar dira, nahitaez, bozka baliagarria izateko. Datu pertsonalak betetzea ere derrigorrezkoa izango da

**ARANBURU
ALTZARIAK**
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

Bozketa fasera igaro diren 21 PROPOSAMENAK

Porposamen guztien artean 6 gustukoenak aukeratu behar dira, nahitaez, bozka baliagarria izateko



HANDIAK

> 100.000 €



1

AURREKONTUA: 121.000 €

PLAZAKO KIOSKOAREN ETA FRONTOIAREN ARTEKO ZOLADURA BERRITZEA ETA BERDEGUNEAK EGOKITZEA



Plazako kioskoaren eta frontoiaren arteko eremuan zoruaren irregularitasunak konpontzea eta berdeguneak egokitzea.



2

AURREKONTUA: 150.000 €

JAUMENDIRAKO BIDEGURUTZEAN OINEZKOEN IRISGARITASUNA BERMATZEA



Oinezkoentzako pasabide bat eraikitzea Auzabarriko goiko aldean, Arantzazurako biribilguneetik Jaumendiko bidegurutzeraino.



3

AURREKONTUA: 109.000 €

GARAGALTZA AUZOAN KURPIDE GAINETIK SORALUZE HOTELERANTZ DOAN IBILBIDE ZATIA ERREKUPERATZEA



Kurpide gaineko iturritxotik Soraluez hotelera doan ibilbidea errekuiperatzea, Leintz-bideko galtzadari jarraipena emanez.



4

AURREKONTUA: 200.000 €

JOLAS PARKEETAN ELEMENTUAK JARTZEA 8-14 URTE BITARTEKO HAUR EA NERABEENTZAT



8-14 urte bitarteko haur eta nerabeen jolaserako, atsedenerako eta sozializaziorako aukerak areagotzeko askotariko elementuak txertatzea egungo jolas-parkeetan.



5

AURREKONTUA: 200.000 €

PILOTALEKU TXIKIA JARTZEA SAN MARTINGO KIROL KANTXAN



San Martin auzoko kirol kantxan pilotaleku txiki bat eraikitzea, arauz kanpoko jolas-erabilerarako.



6

AURREKONTUA: 150.000 €

MUSIKA GRABATZEKO ARETOA EGOKITZEA ELTZIAN



Musika grabatzeko gela bat jartzea Eltzia eraikineko Musika Eltzia espazioan, proiektatutako birgaitzearekin jarraituz.



ERTAINAK

25.000 - 100.000 €



7

AURREKONTUA: 40.000 €

HERRITARREK ENERGIA-KOMUNITATEAK SOR DITZATEN, UDALAK PROZESUA ERRATZEA



Informazioa eta tresnak emango dituen prozesu bat abiaraztea, interesa duten herritarrek eta entitateek energia komunitarioko proiektuak sor ditzaten.

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

8

AURREKONTUA: 40.000 €

IBILGAILU ELEKTRIKOENTZAKO BIRKARGA-PUNTUAK JARTZEA



Udal aparkalekuetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak jartzea.

9

AURREKONTUA: 84.000 €

BARANDAK JARTZEA HAINBAT PUNTUTAN: ZUBIKOAKO APARKALEKUA, ZUBIKOAKO PILOTALEKUA ETA SAN MARTIN AUZOKO ALDAPA



Barandak edo eskudelak jartzea puntu hauetan:
1.- Zubikoa kiroldegiko lur azpiko aparkalekuko eskaileretan, anbulatorio aldeko irteeran.
2.- Zubikoa

kiroldegiko pilotalekuko harmailetan.
3.- San Martin auzoko aldapan.

10

AURREKONTUA: 30.300 €

KIROLDEGIAREN AURREALDEKO JOLAS PARKEAN ATERPEA ETA ITURRIA JARTZEA



Kiroldegi pareko jolas-parkean aterpea eta iturria jartzea.

11

AURREKONTUA: 78.700 €

KOMUN PUBLIKOA JARTZEA UR JOLASEN PARKEAN, ELTZIA PAREAN



Berez garbitzen den eta irisgarria den komuna jartzea San Lorentzo eta Ugarkalde banatzen dituen Ur-uhinak izeneko

parkean, Eltziaaren aurrealdean.

12

AURREKONTUA: 30.300 €

ZAHARKITUTAKO ZAKARRONTZIAK ALDATZEA



Hondakinak gaika biltzeko zaharkitutako edo apurtutako hainbat zakarrontzi erretiratu eta berriak jartzea..

13

AURREKONTUA: 52.000 €

UDAL ERAIKINETAN SEINALEZTAPEN IRISGARRIA ETA INKLUSIBOA JARTZEA



Udal-eraikinen errotulazio eta piktogramekin seinaleztatzea, herritarrek errazago irakurtzeko eta ulertzeko.



14

AURREKONTUA: 6.100 €

HAINBAT BIZIKLETA APARKALEKU JARTZEA HERRIAN ZEHA



Bizikletentzako hainbat aparkaleku jartzea herrian zehar, eraikinen eta azpiegituren inguruan..

15

AURREKONTUA: 40.000 €

BEREZAO AUZOKO PARKEKO MAHAIAK ETA BANKUAK KONPONTZEA

Berezao auzoan, Santa Lutzia ermitaren ondoko hariztia, zaharkituta dauden mahaia eta bankuak konpontzeko lanak egitea.



16

AURREKONTUA: 3.500 €

ITURRIGORRIKO ZELAIK GARBITZEA

Sastrakak moztea eta porteriak eta herdoildutako elementuak kentzea



17

AURREKONTUA: 3.700 €

BIDAURRETAKO ITURRIA EGOKITZEA

Iturria egokitzea, urak hainbeste ziprztindu ez dezan, irisgarritasun baldintzak beteta



18

AURREKONTUA: 15.800 €

KANPANTXOKO ITURRI MONUMENTALA BIRGAITZEA

Herriko ondarea den iturri monumentala birgaitzea Kale Zaharrean



19

AURREKONTUA: 15.000 €

SAN MARTINGO ZUHAIZTIAN KALISTENIA PRAKTIKATZEKO ELEMENTUAK JARTZEA

Altuera eta luzera ezberdineko barraz osaturiko elementuak jartzea, ariketa fisikoa egiteko



20

AURREKONTUA: 15.800 €

GRAFITIAK EDO HORMA-IRUDIAK MARGOTZEA HAINBAT GUNETAN

Udalaren jabetzakoak diren eraikin edo espazioetan grafitiak edo mural artistikoak margotzea



21

AURREKONTUA: 7.300 €

TXAKUR GOROTZAK JASOTZEKO KANPAINA EGITEA

Txakurren jabeek gorotzak jaso ditzaten.



Gaztainari aitortza

Udalak eskultura bat ipiniko du gaztaina-arbolak gure herriaren historian izan duen garrantzia gogoratu eta bertako espezieen landaketa sustatzeko asmoz

Gure Bazterrak elkarteak prestatu du eskultura eta Eltzia pareko berdegunean ipiniko dute

Zuhaitz espezie autoktonoei balioa ematea eta biodibertsitatea ez galtzea dira, besteak beste, Udalak sustatzen duen basogintza ereduaren helburuak. Ildo horretan, elementu eskultoriko bat sortzea erabaki du, espezie horiek iraganean izan duten eta etorkizunera begira izan dezaketen garrantziaz herritarrek kontzientziazteko asmoz.

Hala, aurtengo martxoan ideia lehiaketa bat jarri zuen abian Udalak, elementu eskultoriko bat aukeratu, sortu eta instalatzeko lanak kontratatzeko, 15.000 euroko aurrekontuarekin. Proposamen bakarra aurkeztu zen deialdira, 'Gaztainondoari aitortza' izenburupean Oñatiko Gure Bazterrak kultur elkartearena. Epaimahaik egokitzen jo zuen proiektua, eta hilabeteetako prestaketa lanen ostean, eskultura bere lekuan jartzeko unea iritsi da.

3 METRO LUZE

Ondoko argazkian ikusten den moduan, 3 bat metroko altuera eta 1,70 metroko diametroa duen gaztain enbor eder batek osatzen du eskulturaren gorputza. Artatxuetako gaztainaduitik ateratako zuhaitz anportua erabili dute horretarako. Barrutik hustu eta egurra saneatu ostean, hezurdura metalikoa jarri diote barrualdean, euskarri gisa. Kanpoaldean brontzezko plaka bi itsatsiko dizkiote, gaztainondoak historian zehar izan den funtzioa eta garrantzia azaltzen duten testu banarekin. Eskulturaren oinarrian harlanduz egindako jarlekua egokituko da herritarrek bertan eseri ahal izateko.

Gaztaina ahanzturatik atera eta herritarrei ikusgai jartzea da helburua, eta, horretarako, eskultura Eltzia pareko berdegunean kokatzea erabaki dute.



3 bat metroko altuera dauka eskulturak

AZAROAREN 23an INAUGURATUKO DUTE GAZTAINAREN ARTELANA

Azaroaren 23an, asteazkena, inauguratuko dute gaztainari aitortza egiteko eskultura Eltzia pareko berdegunean. Inaugurazio ekitaldiaz gain, hitzaldi-tertulia eta txango bana ere antolatu dituzte, gaztaina berreskuratzeko abian diren proiektu ezberdinak ezagutzeko. Hauxe egitaraua:

► **AZAROAK 16, KULTUR ETXEAN, 18:30**

HITZALDI-TERTULIA

Hizlariak: Joseba Ibargurengoitia (Euskal Herriko Hazien Sarea) eta Beñat Itoiz (Euskal Gaztain Etxea).

► **AZAROAK 19 TXANGOIA.** Apilaiz-ko (Araba) proiektua ezagutzera. Informazio gehiago: **688 826 500** (whatsapp)

► **AZAROAK 23, ELTZIA AURREKO ZELAIAIN**

INAUGURAZIOA. 'Gaztainondoari aitortza' artelanaren aurkezpena. Bertsolariak eta gaztaina jana.



Eltzia aurreko zelaigunean ipiniko dute monumentua

Gaur egun ia ia baztertuta dugun arren, gaztaina-arbola espezie preziatua izan da Euskal Herrian, hainbat mendetan zehar. Zaintza berezirik behar ez duenez, fruitua erraz biltzen denez eta ondo kontserbatzen denez, gaztaina berehala hedatu zen gure gizartean eta oinarritzko elikagaia izan zen hainbat belaunaldirentzat, landa eremuan eta herritar xumeen artean batez ere. 'Pobreen ogia' ere esaten zioten, egosita edo erreta ez ezik, irin eta ogi bihurtuta ere jaten zelako. Baserri askotan gaztain zopa ere hartzen omen zuten.



ZER DELA ETA ESKULTURA BAT GAZTAINONDOARI?

Txerriak elikatzeke ere erabiltzen zen gaztaina, eta azokara ere eramaten zituzten, bertan saldu eta trukean ateratako diruarekin beste premiaren bati aurre egiteko. Eta garai batean esportatu ere egiten zuten gaztaina. Dokumentatuta dago, XVIII. mendean zehar gaztainaz beteriko itsasontziak ateratzen zirela astero Bilbotik Herbehereetara, Alemaniara nahiz Belgikara. Ekonomia bat ere bazen, beraz, gaztainaren inguruan.

Gaztain arbolaren zura ere preziatua zen, iragazgaitza, iraunkorra eta tolesteko oso moldagarria delako. Banastak egiteko, adibidez, oso erabilia izan da gaztain egurra, eta, baita altzariak egiteko ere. Eta hori gutxi balitz, lurzorua baldintzak eta emankortasuna ere hobetzen omen ditu gaztainak.

GAZTAINADUIAK OÑATIN

Oñatin bertan ere baserri guztiek zuten nork bere gaztainadua, edo, horren faltan, gaztaina arbola jakin batzuen aprobetxamendurako eskubidea. Udal artxibategiko akta liburuetan ere ugariak dira gaztainondoaren landaketa, mozketa edo salmentarekin lotutako arau, agindu eta akordioak XVI eta XIX. gizaldien artean. Hala, 1798ko azaroaren 3ko aktan, adibidez, araoztarrek beraien haserrearen adierazten dute

Udalak gaztainen landaketa eremua mugatu dielako, eta bizirauteko ezinbestekoak dituztelako gaztainaduiak.

GAZTAINAREN GAINBEHERA

Oñatin eta Euskal Herrian, oro har, gaztainak garrantzia handia izan zuen XIX. mende hondarrera arte. Garai hartan *Oinbeltza* (gaztelaniaz *Tinta*) izeneko gaitzak gogor erasan zion gaztainari, ia desagertzera iritsi, eta 1947tik aurrera, *Txankroa* izeneko gaitz berri bat ere pairatu behar izan zuten Euskal Herriko gaztainondoek.

Bestalde, landa-ekonomia tradizionala gainbeheran hasia zegoen ordurako. Industriaren lehen sarrera oldearekin batera, espezie arrotzak iritsi ziren eta euren artean *Insignis* pinua nabarmendu zen. Hauek hazkunde azkarrekoak ziren eta epe motzagoetan etekin ekonomiko hadiagoa zekarten baserriarrentzat. Egurgintzarako irteera komertziala zutenez, euren aldeko apustua egin zen baserri gehienetan, eta 60. hamarkadarako pinua zen nagusi baserri inguruetan. Larrezelaiak, otaduiak, ira-sailak eta basoak pinu landaketara bideratu ziren.

GAZTAINA BIZIBERRITU

Zorionez, badira gaztainari bizi berri bat emateko lanean diharduten proiektu eta ekimen ezberdinak, batez ere Lapurdi eta Behe Nafarroan. Gaztaina landaketa eredugarriak egin dituzte, eta ekonomia bat ari dira sortzen gaztainaren inguruan. Makeako (Lapurdi) Gaztain Etxean esaterako, urtean 15 tona gaztaina eraldatzen dituzte, irina, gailetak, pasta, garagardoa, ezti... egiteko, eta bertako sukaldarien artean ere gero eta estimazio handiagoa du gaztainak. Azaroaren 16an izango dugu ekimen horien berri izateko aukera kultur etxean. ■



Mojen bizilekua izandako solairuan gela berriak egokituko ditu diputazioak

» 2023an egingo dira lanak eta 7 gela berri ateratzea aurreikusten da

San Martin egoitza eta aldamenean dagoen Eguneko Zentroa albiste iturri izan ditugu aspalditxoan. Alde batetik, KABIak (Foru Aldundia) jakitera eman du egoitza-eredu berri baterantz trantsizioa egin nahi duela, eta horretarako egokitzapen lanak egingo dituela Gipuzkoako hainbat egoitzatan, besteak beste, Oñatikoan. Bestalde, Eguneko Zentroa ere albiste izan dugu, uztailaz geroztik asteburu eta jai egunetako zerbitzua ematen hasi delako. Horiei guztiei buruz berba egin dugu egoitzako eta eguneko zentroko zuzendari Elena Berecibarrek, San Martin egunaren inguruko ospakizunak ate-joka dauden honetan.



ELENA BERECIBAR
Egoitzako zuzendaria

Lau urte igaro dira **Servicios sociales Aita Menni** enpresak egoitzaren eta eguneko zentroaren kudeaketa eta zerbitzuaren ardura bere gain hartu zuenetik. Pandemiak baldintzatutako urteak izan dira. Zer moduz eraman duzue?

Urte oso gogorrak izan dira, baina, hala ere, pozik gaude

nahikoa ondo eramaten jakin izan dugulako, ez guk bakarrik, baita egoiliarrek, senideek eta herriak oro har. Osasun arduradunek eta foru aldundiak ezarritako neurri eta protokoloak oso zorrotzak izan dira, behar zirenak, baina, zorionez, poliki-poliki bagoaz normaltasunera bueltatzen.

» Urte oso zailak bizi izan ditugu COVIDaren ondorioz, baina pozik gaude, nahiko ondo eramaten jakin dugulako, denon artean

Pandemia aurreko egoerara bueltatzea oso zaila izango da, baina hasi gara egoitza kanpora zabaltzen, aktibitate gehiago antolatzen, herritarrak barrura sartzen... bizitasun apur bat sortzen. Neurriak arinduz doaz, poliki-poliki, egoiliarrei txertoaren laugarren dosia ipini diegu eta lasaituz goaz, zorionez.

KABIak (Foru Aldundia) egoitza-eredu berri baterantz joan nahi duela adierazi du, pertsonalizuagoa izango den eredu baterantz, eta horretarako egoitzetan hainbat egokitzapen lan egin beharko direla. Oñatiko egoitzan ere egon ziren begira apirilean. Zein da asmoa?

Oraingoz dakiguna da mojen

bizileku izandako solairu-hegala berrituko dutela, ohe bakarreko gela berriak egiteko; 7 gela berri izango lirateke, baina azken proiektua ez digute oraindik erakutsi. Lanak 2023an zehar egiteko asmoa dago.

Aldundiak adierazi duenez, egoitzak 15 pertsona inguruko unitateetan antolatzea da helburua, arreta pertsonalizatuagoa eman ahal izateko. Zein da egoera San Martin egoitzan?

Gu nahiko ondo gaude. Lehen solairuan 28 ohe ditugu, baina 2. eta 4. solairuetan 19 eta 20 ohe, eta 3. solairuko unitate psikogeriatriskoan 15. Beraz, foru aldundiak desiragarritzat jotzen duen kopuru horretatik nahiko hurbil gaude, eta, esan bezala, zazpi gela berri egiten badituzte, are gehiago hurbiltzeko moduan egongo gara 15 pertsonako elkarbizitza unitate horietara.

Egoitzetako arkitektura berri-tzeaz gain, langileen ratioak eta lan baldintzak ere inportanteak dira kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko. Nola zaudete alde horretatik?

Azkenaldian fisioterapeutaren eta psikologoaren lan orduak gehitu ditugu, Foru Aldundiaren 2019ko dekretuak ezartzen duena betez. Inportantea dela uste dut, zaintza emozionala gehiago landu eta egoiliar bakoitzari komeni zaizkion ariketa espezifikoak egin ahal izateko.

Auxiliar edo erizain laguntzaileei dagokienez, Foru Aldundiaren ratioa betetzen dugu, baina, hori egoiliarren dependentzia mailarekin lotuta dago eta, nire

Asteburu eta jai egunetako zerbitzua ematen hasi dira Eguneko Zentroan



Uztailaren 1az geroztik asteburu eta jai egunetako zerbitzua ere eskaintzen du Oñatiko Eguneko Zentroak; hau da, astelehenetik ostiralera ez ezik, larunbat, igande eta jai egunetan ere joaten dira bertara erabiltzaileak. astegunetako ordutegi eta zerbitzu berberekin.

Oñatiko eguneko zentroak 30 plaza ditu hitzartuak astegunetarako, eta asteburu eta jai egunetan 12 plaza bakarrik eskaintzen ditu (Foru Aldundiak finkatzen du kopurua), baina urrats inportantea izan da, batez ere erabiltzaileen senideentzat. Une honetan plaza guztiak beteta daude, eta hiru erabiltzaile daude itxaron zerrendan.

Zerbitzua asteburu eta jai egunetara zabaldu ahal izateko, erizain laguntzaile bat gehiago kontratatu behar izan dute, eta txandaka osatzen dute astegun eta asteburuetako ordutegia. Denera 6 erizain laguntzaile daude une honetan eguneko zentroko lantaldean; astegunetan 5 egoten dira lanean, eta asteburuko txandetan 2.

Eguneko zentroak goizeko 9etatik arratsaldeko 18:00ak arteko zerbitzua ematen du. Goiz partean estimulazio kognitiboa eta fisikoa lantzeko ariketak egiten dituzte. Ordubetetan bazkaltzen dute, eta lo-kuluxka bat egin ostean, arratsaldean eskulanak, mahai-jokoak edo, eguraldiak laguntzen badu ibilalditxoak egiten dituzte.

DATUAK

» San Martin egoitzak 83 ohe ditu eta 81 plaza eskaintzen ditu (2 ohe COVID kasuetarako erreserbatzen dituzte)

» Eguneko Zentroan 30 plaza daude astegunetan, eta 12 asteburu eta jai egunetan

ustez, auxiliar gehiago behar ditugu Oñatin. Badakit Aldundiak ere baduela dekretua gainbegiratu eta eguneratzeko asmoa. Azken batean, egoitza bakoitzeko errealitatea hartu behar da kontuan ratioak egoki finkatu ahal izateko.

Egoitzek tokian tokiko komunitatearekin lotura sendoa edukitzea ere inportantea da. Nolakoa da harreman hori Oñatin?

San Martin egoitzak harreman estua izan du beti herriarekin. Azken urteotan, COVID-a dela eta etenda geratu da harreman hori, baina hasi gara berriz ere lehengo dinamikara bueltatzen,

astiro-astiro. Herriko jaietan hainbat ekitaldi egin dira hemen, eta asmoa da urtean zehar ere dinamika bat mantentzea, herriko kultur talde eta bestelako eragileekin elkarlanean, baina egoiliarrek nahi dutena kontuan hartuta beti ere. Egoitzara poza eta alaitasuna ekartzen saiatu behar dugu denon artean.

Azkenaldian, COVIDari aurre egiteko hartu behar izan ditugun neurri zorrotzen ondorioz, nagusien egoitzetik nola baiteko mesfidantza sortu da herriararren artean, eta saiatu behar dugu, poliki-poliki, lehengo konfiantza giroa berreskuratzen. ■

**ZURICH**
M^a del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEAK
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAKO
OLAKUA 12 H 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77



Oñatiko Energia Plana aurkeztu du udal gobernu taldeak

Energiaren arloan bizi dugun egoera nahasiaren aurrean, herritarren beharrei erantzun egokia ematea eta etorkizunera begira izango ditugun erronkei aurre egitea da udal gobernu taldeak aurkeztu duen Energia Planaren helburua. Agintaldi hasieratik lantzen ari diren planak izaera ezberdineko 8 esku-hartze biltzen ditu, eta honako arlo hauetan eragin nahi du, besteak beste: energia berriztagarrien sorkuntza, eraginkortasun energetikoa, argindarraren prezio justuagoa, merkatuarekiko menpekotasuna murriztea...

Energia Planak jasotzen dituen neurrien artean, Oñatiko energia berriztagarrien merkaturatzailea sortzeko asmoa azpimarratu behar da. Udalak gaur egun daukan enpresa merkaturatzailea (Merkaña S.L.) agente bat besterik ez da CHC enpresaren baitan, eta ezin du merkaturatze eragin. Horregatik, %100 udalarena izango den merkaturatzailea sortzea da asmoa, herritarrei prezio justuagoa eskaini ahal izateko. Ildo horretan, aholkularitza bulego bat ere ireki nahi du Udalak, herritarrei argindar eta gas fakturak aztertzen laguntzeko.

Bestalde, herrian energia berriztagarriaren sorkuntza areagotzeko aukera ezberdinak aztertzen ari dela ere aurreratu du Udalak. Ur Jauziak enpresak 16 GWh ekoizten ditu urtean, hau da, Oñatiko etxebizitzaren kontsumoa hornitzeko adina, baina udako hilabeteetan produkzioa asko murrizten da eta horren osagarri izango lirateke proiektu berriak. Udalaren asmoa da 2MWh-erainoko potentzia sortzea, ingurugiroan ahalik eta inpaktu txikiena izango duten azpiegitura fotovoltaiko edo eoliko bidez.

Horiez gain, energia kontsumoa aurreztera zuzendutako neurriak eta kotxe elektrikoentzako karga-lekuak instalatzeko proiektua ere jasotzen du Energia Planak (ikus ondoko taula). Hurrengo asteetan zehaztuko du Udalak nola garatuko den puntu bakoitza.

8 ESKU-HARTZEAK

- **Oñatiko energia berriztagarrien merkaturatzailea sortzea**
herritarrentzat argindarraren prezio justuagoa lortzeko
- **Aholkularitza bulego martxan jartzea**
herritarrei laguntzeko etxeko argindar eta gas fakturak aztertzen
- **Energia berriztagarrien sorkuntza areagotzea**
Ingurugiroan ahalik eta inpaktu txikiena izango duten proiektuak abian jartzea.
2 megawatt-erainoko sorkuntza gunea edo guneak jartzea da asmoa
- **Auditoretza energetikoak eraikin publikoetan**
eraginkortasunean sakondu eta argindarra aurrezteko
- **Autokontsumorako eguzki plakak eraikin publikoetan**
Kirodegiko kantxa berdeko teilatuan plaka fotovoltaikoak jartzeko proiektua abian da
- **Lankidetzan oinarritutako iraunkortasun sarea osatzea**
Beste eragile batzuekin (Mankomunitatea, Debagoiena 2030...) elkarlanean aritzea, etorkizuneko erronkei aurre egiteko
- **Kale argiteria publikoaren diagnostikoa**
LED teknologiadun lanparak jartzea kontsumoa jaisteko
- **Kotxe elektrikoentzako karga-lekuak**
Modu progresiboan instalatzea auzoz auzo, mugikortasun iraunkorrerako bidean

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



Gure elikadura ohiturez, ingurumenaz eta nekazaritzaren etorkizunaz gogoeta egiteko JARDUNALDIAK

Elikadura-sistema desoreka askoren bidegurutzean aurkitzen da. Gure elikaduraren inguruan hartzen ditugun erabakiek eragin zuzena dute gure ingurunean, eta erabakigarria da, beraz, gure osasunean, gizartearenean zein munduarenean.

Oñatira etorriaz, nekazaritza sektoreak gure herrian bizi duen egoera larria da. Profesionalki dihardutenak oso gutxi dira, gero eta gutxiago. Eta, bestalde, gure elikaduraren kalitatea ere gero eta okerragoa da; askotan ez dakigu jaten duguna nondik datorren, nola ekoitzia izan den etab.

Egoera hori hobetzen saiatzeko asmoz, **Nekazal kulturaren gainbehera eta ingurumenarekiko ondorioak. Iragana, oraina eta etorkizunerako aukerak** izenburua duen beka eman zuen udaleko Ingurumen departamentuak, gaia sakon aztertu eta ekintza plan bat martxan jartzeko helburuarekin.

Ikerketa lana oso aurreratu dago, jada, eta udaleko Ingurumen sailak jardunaldi batzuk antolatu ditu azterlan horren emaitzak partekatzeko eta gai hauen inguruan gogoeta egiteko. Herritarrei elikagaien kontsumo kontzienteago baterako tresna eta baliabideak eskaintzea da jardunaldien helburua. Ikusi egitaraua.



EGITARAUA

Azaroak 5, larunbata

10:00-14:00, Herriko plazan

'KONTSUMO KONSZIENTEA' INFORMAZIO PUNTUA

Elikadurak gure osasunean zein ingurugiroan duen eraginaz sentsibilizatzeko edukiak landuko dira.

Azaroak 9, asteazkena

18:30, kultur etxean

OÑATIKO ELIKADURA SAREAREN ARGAZKIA EZAGUTZEKO GAKOAK. ZEIN DA DATOZEN URTEETARAKO IBILBIDE ORRIA?

Oñatiko Elikadura Sistemaren oinarri fisiko eta soziala ezagutzeko egin den azterlanaren emaitzak azaldu eta Elikadura Estrategia definitzen hasteko saioa. Ekintza honetan parte hartzeko izena eman behar da: 615 718 048 / nekazaritza@onati.eus

Azaroak 12, larunbata

11:00-13:00, Oñatiko Natur Eskolan

'NATURAREN ERRITMOETARA ELIKADURA, NATURA ETA ONGIZATEA UZTARTUZ'

Amaia Díaz de Monasterioguren eta Amaia Aierbe nutrizionistek gidatutako tailerra. Eguneroko elikadura osasuntsu eta iraunkor baterako erremintak landuko dira. Izen-ematea: 651701741 / info@amaianutrizioa.com

Azaroak 15, asteartea

19:00, Zine aretoa

'ZURE PLATEREAN HASTEN DA MUNDUA'. DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA

Landarlan ingurumen elkarteak egingako dokumentalak gure kontsumo ohituretan pauso txikiak ematera gonbidatzen gaitu, bestelako mundu baterako aldaketan ezinbestekoak direlako.

Azaroak 19, larunbata

10:00-13:00

ELKORO BASERRIRA BISITA ETA PRODUKTUEN DASTAKETA

EHKOlektiboko kide den Bergarako Elkoro baserri-etxaldera bisita. Izen-ematea: intza.ehkolektiboa@gmail.com / 635 202 146

Azaroan zehar

SENTSIBILIZAZIO SAIOAK

LHko 3. zikloko eta DBHko ikasleekin

AXIER IRAETA / Udaleko Ingurumen batzordeko burua

« %77ko gaikako bilketa tasa oso ondo dago, baina ahalegin txiki batekin tasa hori handitu dezakegu, eta ingurumenak eskertuko digu »

Dagoeneko 9 urte igaro dira Oñatin hondakin bilketa sistema aldatu zenetik. Herritarrentzat esfortzu bat suposatzen bazuen ere, gaikako bilketan hobekuntza nabarmena eman zen. Hala ere, denborarekin zenbait jokabide desegoki antzeman dira herritarren artean, eta Udala lanean ari da, Mankomunitatearekin batera, ohitura horiek zuzendu eta, bide batez, sistemak dituen gabezia tekniko batzuk konpondu nahian. Udaleko Ingurumen batzordeko burua Axier Iraetak eman digu horien berri.



Axier Iraeta, etxe guztietara banatu den eskuorriarekin

Hondakin bilketa gaikako bilketari dagozkion azken datuak (2021) oso onak dira (%77,21), baina jokabide desegoki batzuk antzeman omen dituzue azkenaldian. Zeintzuk?

Ez da gauza orokorra, baina, bai, azkenaldian ohitura desegoki batzuk hedatzen ari direla ikusi dugu: hondakinak bereizi gabe ateratzea, kubotan atera ordez poltsetan uztea eta, okerragoa dena, lurrean lagatzea, ordutegiak ez errespetatzea...

Jokaera horiek ekidin asmoz, eskuorri bat banatu dugu etxe guztietara, bilketa sistemaren inguruko jarraibide eguneratuak emanez. Sistema hobetzea eta, denon artean, gaikako bilketa tasa handitzen jarraitzea da helburua.

Hondakinak uzteko esekitokietan ere egin dituzue aldaketak.

Bai, esekitokietako beheko posizioak kentzea erabaki

dugu, bi arrazoiengatik: lurretik oso gertu daudenez, zenbait jende hondakinak zuzenean lurrean uzteko joera daukalako eta, gainera, animaliak samur iristen direlako, hondakinak barreiatuz. Beraz, beheko posizioak kendu eta goiko posizioetan birkokatu ditugu eta, horri esker, lortu da, ez guztiz, baina bai neurri handian, hondakinak lurrean uzteko joera zuzentzea.

Arandelak ere ipini dituzue esekitokietan, haizeak ez ditzan ontziak eraman.

Hala da, bai. Haizea indartsu dabilen egunetan kuboa esekitokietatik atera egiten ditu, eta hori ekiditeko hortz txiki batzuk dituzten arandelak ipintzen ari gara esekitoki guztietan.

Kuboa sartu eta ateratzeko garaian arandela jaso egin behar da pittin bat, kateatuta ez geratzeko, baina sistema erraza eta eraginkorra da, urriko haizete egunetan ikusi ahal izan dugun moduan. Aldaketa nabaria izan da.

Mankomunitateko langileak ari dira arandelak ipintzen, eta oraindik sei bat aste behar dute Oñatiko esekitoki guztietara iristeko.



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Ontzi urdinean sartzen ez diren kartoiekin ere arazoak sortu ohi dira maiz, haizeak eramaten dituelako. Zein da konponbidea?

Hori da jendeak hartu duen beste ohitura txarretako bat; ontzi urdinean atera ordez, kartoizko kaxa batean sartu eta lurtean uzten ditu kartoiak eta paperak, eta, jakina, haizea indartsu dabilen egunean airean eramaten ditu.

Horiei gogorarazi behar zaie kartoiak eta papera ontzi urdinean atera behar direla, dagokion tokian eskegita. Gogoratu, kubo edo ontziak behar izanez gero, kiroldegiko harreran eskatu daitezkeela.


Bestalde, azken urteetan asko zabaldu da Internetez produktuak erosteko ohitura, eta hauek plastiko edo kartoizko bilgarrietan etortzen dira. Batzuetan, gainera, bilgarri hauek oso handiak izaten dira. Nire ustez, kontsumo eredu honek kalteak besterik ez dakartza; baliabideen xahuketa, garraioak eragindako emisioen isurtzea, hondakinak sortzea, tokiko merkataritzan salmenten jaitziera, etab. Baina gure ohituretan txertatu den zerbait dena ukaezina da.

Jendeari gogorarazi nahi nioke, beste aukera bat, atari edo bebaruan edukiontzi komunitarioa ipintzea dela. Mankomunitatean (943 504 721) eskatu besterik ez dago, eta oso sistema erosoa da.

Bestalde, tamaina handiko kartoiak Garbigunera edo larrialdi guneetara eramateko aukera ere hor dago.

Mankomunitateko langileek ikuskaritza lanak ere egiten dituzte Oñatin. Emaizari eman al du?

Mankomunitateko teknikariak Oñatira astean behin etortzen dira. Esekitoki guneen jarraipena egin eta lekuz edo garaiz kanpo ateratako kuboetan pegatinak jartzen ibili dira, jokabide desegokiak



Jokabide desegoki batzuk antzeman ditugu azkenaldian (hondakinak bereizi gabe ateratzea, kuboetan atera ordez poltsetan uztea eta, okerragoa dena, lurtean lagatzea...), eta horiek zuzentzen ahalegindu behar dugu

ohartaraziz.

Urtarrilean urrats bat gehiago emango dugu, eta asteroko ikuskaritza egin beharrean, egunerokoa egingo dugu. Mankomunitateak kontratatutako bi lagun egun osoan ibiliko dira gune ezberdinetan zehar, eta beraien zeregina izango da herritarrek ohartaraztea eta informatzea jokabide desegokiak antzematzen direnean. Ezjakintasunagatik gaizki egiten duen jendeari erakutsiko zaio ondo egiten, eta, jakinda ere, gaizki egiten duenarekin bestelako

neurriak hartu beharko dira. Sei astez egongo dira lanean ikuskatzaileak.

Komeni da gogoratzea Larrialdi Guneak ere hor daudela.

Hala da, bai. Oñatin bi gune ditugu (Eltzia eta Garagaltza) eta egoera berezietan (oporrak, tamaina handiko kartoiak...) erabil daitezke, oso modu errazean; **943 252 288** zenbakira deitu eta bertan emango digute larrialdi guneke atea zabaltzeko kodea.

Gaikako bilketa tasa %77 pasatxoan dago Oñatin. Nahikoa al da?

Kopuru hori oso ondo dago, Europak markatzen dituen helburuen gainetik dago, baina, nire ustez, helburuak '0 zabor' behar du izan, eta denon aldetik ahalegin txiki bat eginez gero, %80 edo %90era samur irits gintezke.

Azken mezurik?

Gauzak ondo egiten ari gara, oro har. Jende asko dago pazientzia handiz eta gogoz kudeatzen dituen bere hondakinak, eta bide horretan sakondu behar dugu, hondakinak gutxiagotuz eta sortzen ditugun horiek ondo sailkatzen eta ondo ateratzen. Eta hainbesteko kontzientzia ez duten apur horiei eskatuko nieke esfortzu txiki bat egitea, ingurumenari eta gainerako herritarrei zor zaien errespetuagatik, eta dagokion bezala kudeatzea nork bere hondakinak. ■

Goi mailako konposta

Herrian dauden 7 auzo-konpost guneetako funtzionamendua hobetzeko asmoz, gune hauen jarraipena eta mantenua egiteaz arduratuko den pertsona bat kontratatu du Udalak. Bere egitekoa da hondakinak nahastea, egituratzailea eta ura gehitzea, gunea txukun mantentzea... Eta emaitza begibistakoa da, Iraetaren ustez. "Bai, gune hauek askoz txukunago daude gaur egun, eta konpostatze prozesua ere ondo doa".

Horrez gain, hilerri atzealdean gune bat prestatu zuen Udalak, konpost guneetatik ateratzen den materiala bertara eraman eta konpostatze prozesua amaitzeko, eta orain galbahe-makina automatiko bat ipiniko du bertan, Iraetak aurreratu digunez. "Konposta xehe-xehe eginda ateratzea da helburua. Hori martxan jarri ondoren, goi mailako konposta aterako dugu, eta herritarrei emango diegu ongarri hori eskuratzeko aukera". •

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

EAJren udal taldeak Olaiturrin aldeko apustua egiten du musika eskola berria eraikitzeko. Zehazki, Olaiturriko kirol guneari heren bat kenduta (Lizaur kale aldera) hiru solairu eta, denera, 1.500m² inguruko eraikin berria jasotzea proposatzen dute jeltzaleek.

EAJren ustez abantaila ugari ditu kokapen honek: herriguneari dago, lurzorua publikoa da, eraikina nahieran diseinatu eta antolatzeke aukera ematen du, Lizaur kaleko gune hori egoki antolatu eta txukunduko litzateke eta, gainera, etorkizunera begira, Agustinoen eraikinarekin bat egin eta azpiegitura multzo ederra osa liteke kulturaren inguruan.

Musika eskola berria Olaiturrin eraiki ahal izateko aldaketa puntualak egin beharko lirateke hiri antolamendurako dokumentuetan (PERCHE, HAPO), baina EAJk ez du uste horrek prozesua asko atzeratuko lukeenik, eta borondate politikoa egonez gero, hiru urteko epean prest egon liteke eskola berria.

Jeltzaleen ustez, Olaiturriko aukera askoz hobea da, ustez udal gobernu taldeak lehenesten duen San Martingoa baino. "Ikaragarri larria iruditzen zaigu gizarte arlorako urteetan gordeta egon den San Martin egoitza ondoko eremua erabiltzea musika eskola berria bertan kokatzeko", adierazi dute. Horregatik, Olaiturriko proposamena aztertzea eta aintzat hartzea eskatzen diote gobernu taldeari.

Musika Eskola berria Olaiturrin eraikitzea proposatzen du EAJren udal taldeak



Olaiturrin
3 solairu
eta 1.500m²
inguruko
eraikin
berria
jasotzea
proposatzen
dute
jeltzaleek

Arduragabekeriak jokatzeta eta protagonismo bila aritzea egotzi dio gobernu taldeak EAJri

Musika eskolaren etorkizunaren inguruan abian den prozesua errespetatu barik, arduragabekeriak aritzea egotzi dio gobernu taldeak EAJri. Nolabaiteko protagonismo bila aritzea leporatu dio, erdipurdiko informazioa emanez, herritarrak nahastu nahian. EH Bilduk adierazi du musika eskola berriaren prozesua hasieratik irekia eta publikoa izan dela, eta interesa izan zezaketen eragile guztiak gonbidatuta egon direla, baita EAJ bera ere. Prozesu hori oraindik ere martxan denean, bere proposamen propioa egin izana kritikatu dio EAJri, prozesua bera errespetatu barik.

Gobernu taldeak gaineratu du, orain arte ez duela ezer publiko egin, aukera desberdinak aztertzen dabilelako, oso argi duelako musika eskolako komunitatearekin (langile, guraso, ikasle eta udal ordezkariak osatua) adostutako espazio bat izan behar duela. Ildo horretan, irailaren 12an egin zuten azken bilera musika eskolako langileekin.

Gobernu taldeak adierazi duenez, San Martin gunea epe motzean abiarazteko proiektu aukera moduan jarri du mahai gainean, beti ere, musika eskolako komunitateak begi onez hartuko balu. "San Martin guneko eremuak 7.000 metro karratu ditu, udal jabetzakoa da, eta musika eskola hutsetik diseinatzeko aukera ematen du", azaldu du EH Bilduk; "herrigunetik gertu dago, ikastetxeetatik eta auzoetatik dagoen distantzia parekoa da, aparkalekua egiteko aukera ematen du, eta espazioaren banaketa egokia eginez gero, San Martin egoitzaren beharrei erantzuteko aukera ematen du".

Epe ertain-luzera, ordea, beste hainbat espazio egon daitezkeela esan du gobernu taldeak eta, hala, musika eskolaren etorkizunaren inguruan egin den txostenean 8 kokapen posible aipatzen direla aurreratu du.

Urte askotan zuekin

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte



MAPFRE
OÑATI

Udal zerga eta tasek %4ko igoera orokorra izango dute 2023an

- » Hobari berriak onartu dira, eraginkortasun energetikoa eta trantsizio ekologikoa sustatzeko
- » Hobariak aplikatzeko oinarri ezargarriak eguneratu dira, ahalik eta herritar gehienengana iristeko

Datorren urtera begira, udal zerga eta tasetan %4ko igoera orokorra aplikatzea onartu zuen udalbatzak urriaren 27ko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz.

Udaleko Ogasuna batzordeko buru Xabier Igartuak adierazi zuen igoera beharrezkoa dela, kalitatezko zerbitzu publikoak ematen jarraitu ahal izateko. "Orain arte moduan, egoera zaurgarrian dauden eta behar handiena duten herritarrei zein herriko hainbat elkarteri ere dirulaguntzak ematen jarraituko dugu".

Egungo egoera ekonomikoak arduraz eta seriotasunez jokatzera behartzen gaituela esan zuen Igartuak. Proposatutako %4ko igoera, urte arteko KPlan eman den %10eko igoeraren oso azpitik dagoela gogorarazi zuen, eta bien arteko aldea Udalak hartuko duela bere gain.

KPlak izan duen igoera kontuan hartuz, Foru Funttsaren 2022ko itxiera aurreikuspena ere nahi baino txikiagoa dela adierazi zuen Igartuak, "2021eko likidazioa baino %1,47 handiagoa soilik. Eta 2023rako aurreikuspena, 2022ko itxiera baino %3,44 handiagoa. Bietan ere, KPlaren igoeraren oso azpitik".

"Oso erraza da oposiziotik zergak izoztea eskatzea, Udalak ematen dituen zerbitzu, dirulaguntza eta inbertsioak murrizteko eskaera egin gabe", gaineratu zuen Igartuak, EAJren proposamenari erantzunez. "Izozteak hori dakar, zerbitzuak gutxitzea, herritarrei eta herriko elkartei emandako dirulaguntzak gutxitzea, edo herriak aurrera egiteko beharrezko inbertsioak atzeratzea".

Hurrengo urteetara begira, Udalak hainbat proiektu estrategiko dituela gogorarazi zuen Igartuak (Musika eskola, Urrutxuko zigoletzea, Emakumeen etxea, futbol zelai berria, Ur Jauziak-ek egin beharreko inbertsioak...), eta horien gauzatze maila diru-sarreraren arabera izango dela. "Herritarren beharrei erantzuteko gaude, eta herri proiektu ezberdinak gauzatzea da EH Bilduren udal gobernuaren asmoa, Oñatik orain

"Hurrengo urteetan ere kalitatezko zerbitzu publikoak ematen jarraitzea da udal gobernuaren asmoa"

XABIER IGARTUA

Ogasun batzordeko burua

arte moduko herri bizia, dabilen herria izaten jarrai dezan.

Inguruko herrietan EAJ "modu ardura-tsuagoan" jokatzeko ikusi dutela esan zuen Igartuak, "%3ko eta %4ko igoerak adostuz, Antzuolan edo Aretxabaletan, adibidez".

Bestalde, Oñatiko udalak aurrekontuaren %11,3 dirulaguntzetara bideratzen duela azaldu zuen Igartuak. "Aloña Mendi, musika eskola, kultur taldeak, auzoak, merkataritza, gizarte larrialdiak... bideratutako laguntzak dira, eta EAJ gobernuaren egon zen azken urteko datu eguneratuarekin alderatuz, 527.000 euro gehiago dira".

HOBARI BERRIAK

2023ko ordenantzan aplikatuko diren hobari berriak ere onartu zituen udalbatzak. Hala, Ondasun Higiezinaren Gaineko zergari (OHZ/IBI) dagokionez, kuota osoaren %50eko hobaria lortuko dute 'A' motako efizientzia energetikoaren etiketa duten edo lortuko duten ondasun higiezinak.

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergari (TMIZ) dagokionez, %25 eta %40 arteko hobaria izango dute CO₂ isuri baxuak dituzten ibilgailu berriei.

Bestalde, zenbait zerga eta tasetan (OHZ, TMIZ, Euskaltegia, udalekuak eta ludotekako matrikula) hobariak aplikatzeko oinarri ezargarriak igo egingo dira (%9 batz bestea), ahalik eta herritar gehienengana iristeko, eta guraso bakarreko familiek familia ugarien kontsiderazioa jasoko dute.

Zerga eta tasak izoztea proposatu du EAJk

EH Bilduk proposatutako %4ko igoera neurrigabea eta justifika ezina da EAJren ustez, eta 2023ko udal zerga eta tasak izoztea eskatu dute jeltzaleek. "Aurreikuspenen arabera, 2023a urte zaila izango da ekonomikoki, eta ez da igoera edo karga gehitzeko unea. Herritarrek aurre egin beharko diete, besteak beste, argiaren, gasaren, erosketen, erregaiaren eta finantza-interesen igoerari".

EAJren ustez, zerga eta tasak izozteak ez du Udalaren etorkizuna hipotekatzen, ezta hark bermatu behar dituen zerbitzuen kalitatea ere. "Irtenbidea ez da herritarrei ahalegin handiagoa eskatzea, baizik eta udal kudeaketa egokia egitea, hurrengo udal aurrekontuetan lehentasunak ezarri, kontuak inoiz baino zorrotzago kudeatuz".

Illo horretan, EAJk gogorarazi du Udalak aparteko diru-sarrerak izango dituela hurrengo ekitaldian. "Foru Funttsaren aurreikuspenen arabera, 2022an espero zena baino 285.000 euro gehiago jasoko ditu Udalak, eta 2023an aurten baino 600.000 euro gehiago, gutxi gora behera. Gainera, gogoratu behar da Oñatiko udalak beste udal batzuek ez duten aparteko diru-sarrera bat duela (Oñargi eta Ur Jauziak), 1989an EAJ buru zuen udalak egindako inbertsio estrategikoari esker".

Hobari dagokionez, alderdi jeltzaleak begi onez ikusten du guraso bakarreko familiek familia ugarien eskubide berberak izatea. Bestalde, EAJk eskatu du trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren %75eko hobaria aplikatzea motor hibridoak duten ibilgailuei.

MINDFULLNESS ETA ERLAXAZIOA

Doako tailer zikloa Oñatin, Iturrigorri Elkarlan-ek eta Udalak antolatuta

Buru-osasuna gero eta gorago dago herritar askoren kezka iturrien zerrendan. Tabuak alde batera utzi eta gero eta normaltasun handiagoz berba egiten dugu buru-osasunaz. Eguneroko errutinari, estresari eta bizi dugun testuinguru ezegonkorrari aurre egiteko soluzioak eta erremintak behar ditugu, eta horregatik jotzen du jende askok **mindfulness** eta **erlaxazio** tekniketara.

MINDFULNESS-aren ONURAK

Mindfulness-ak laguntzen digu gauzak argiago ikusten, gure erreakzio negatiboak kontrolatzen, eta eraginkorragoak izaten egoera bakoitzaren aurrean. Gure emozioak erregulatzen, geure buruarekin eta besteekin hobeto sentitzen eta, azken batean gure gorputz eta buru-osasuna hobetzen laguntzen digu.

Erlaxazioaren bidez, gorputzeko giharretako tentsioak arintzea lortzen dugu, eta kontzentrazioa hobetzen eta deskonektatzen laguntzen digu. Hitz batean esanda, mindfulness eta erlaxazio teknikien bidez lortzen dugu buruak ez gaitzala dominatu, eta zoriontsuago izaten laguntzen digute.

ITURRIGORRI ELKARLAN ELKARTEA

Leuzemiari eta bestelako gaixotasun hematologikoei aurre egin, eta hezurmuinaren donazioen alde lan egiten duen elkarte da Iturrigorri Elkarlan. Osasunaren prebentzioa eta sustapena da bere lan ildoetako bat, eta, ildo horretan, 6 tailer eskainiko ditu Oñatin, dohainik, Udalaren babesari esker, mindfulness eta erlaxazio tekniketan sakontzeko.



MARIBEL PACHECO / Iturrigorri Elkarlan

"Ez galdu aukera. Hartu zure osasunaren gidaritza"

TAILERRAK

• EGUNAK

Azaroak 7, 14, 21, 28
Abenduak 5, 12

• ORDUA:

18:30-20:00

• TOKIA:

Euskadun Berria gela
(Bidebarrieta kalea, 18-Behea)

• IZEN-EMATEA:

maribelpachecos@gmail.com
687 752 842

Doluari buruzko solasaldia

Zenbait herritarrek egindako eskariari erantzunez, doluari buruzko hitzaldi-solasaldia antolatu du udaleko Gizarte Zerbitzuen departamentuak. **Azaroaren 28an**, astelehena, izango da, Santa Ana aretoan (18:30). Doluan dagoen pertsonarekin eta senideekin, edota gaixotasun larri aurreratuari aurre egiten dioten pertsonekin lan egiten duen BIDEGIN elkarteko Izaskun Andonegi izango da hizlaria, eta hainbat gomendio emango ditu dolu egoerak eramaten laguntzeko.



Berebalagun ikasturte berria abian

Euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez edo ohitura gutxi dutenak eta euskaldunak batzen ditu **Berebalagun** egitasmoak.

Euskara hobetzeko, gehiagotan eta gehiagorekin erabiltzeko, euskaraz bizitzeko eta ingurune euskalduna sortzeko lagungarria da **Berebalagun** egitasmoan parte hartzea. Egitasmoan parte-hartzen dutenen esanetan, lotsak eta urduritasunak gutxi irauten du eta ondo pasatzeko aukera egoten da. Gainera doan da.

Ikasturte honetan bi talde osatu dira, eta astero elkartzen dira ordubetez kafe baten bueltan euskaraz hitz egiteko. Egitasmoaren arduradunek adierazi dute oraindik izena emateko eta talde berriak sortzeko aukera dagoela. Izena emateko edo informazioa jaso nahi izanez gero, euskaltegira jo behar da: 943782496 / euskaltegia@onati.eus



Neska gazteentzako Jabetze Eskola

Udaleko Berdintasun sailak antolatzen duen Jabetze Eskolaren baitan Oñatiko neska gazteei (14 eta 20 urte arteko) zuzendutako elkargune bat sortu nahi da, identifikatutako beharren arabera proposamenak landu ahal izateko. Helburu horrekin bilera irekia egingo da azaroaren 7an, astelehena, Gaztelekuan, 18:00etan.

Gure beharra baduzu, ondo-ondoan gaituzu.

Hain ondo zaindu nahi
zaituztegu,
**Arrasate/
Mondragonen**
bertan ere artuko zaitu
Zuatzu Klinikako
espezialista-taldeak,
hogei urtetik gorako
esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.



Nafarroa Etorbidea, 4 (behea) . 20500 Arrasate/Mondragon
943 792 018 . www.clinicazuatzu.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Azaleko argazkia: Itziar Bastarrika



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Eskerrik asko !

Eduarne Bikuña, Hotz-Oñatiren izenean

Eskertuta gaude Hotz Oñatik asteburuan egindako elikagai bilketak izandako erantzun onagatik, eta eskerrak eman nahi ditugu. Egungo egoera honetan ez genuen uste horrenbeste jasoko genuenik. Kezkatuta geunden, baina jendeak oso ondo erantzun du; herritarrengandik jasotako erantzuna oso ona izan da oraingoan ere. 6.600 kilo batu ditugu, hauetatik ia 600, Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxean batutakoak.

Elikagai batzuk Lesbosera bidali ditugu, *Zaporeak*-ek erabili ditzan; eta beste batzuk Atenasera, *En Red SOS Errefuxiatuak* elkartearen bitartez han banatzeko. Eskerrik asko!

Beste behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batean edo bestean bilketa honetan parte hartu duzuen guztioi; tartean, **denda laguntzaileak** (Eroski Lezesarri, Eroski Errekalde, Super BM, Errekaldeko denda eta San Migel Kooperatiba) **boluntarioak** eta **herritarrak**.

Mila mila esker laguntzen laguntzeagatik!

ESPERIENTZIEN GELA

Oñatiko Esperientzien Gelak antolatuta, bi hitzaldi izango ditugu Oñatin azaroan.

Azaroak 9, asteazkena Santa Ana antzokia, 10:00

Gaia: 'Actualidad geopolítica + El deporte como hecho social total: debate ético sobre su mercantilización'. Hizlaria: Juanjo Alvarez, legalaria.

Azaroak 30, asteazkena Santa Ana antzokia, 10:00

Gaia: Pandemiaren ondorengo zaintza eszenatokia. Hizlaria: Félix Arrieta, EHuko irakaslea.

Informazio gehiago: goienagusi.eus

Azaroaren 19an egingo den manifestaziorako deia egin du pentsiodunen mugimenduak

Urriaren 15ean Madril egindako manifestazioaren ostean, Euskal Herriko pentsiodunen mugimendua eta Estatuko gainerako plataforma eta mugimenduak indartsuagoak gara.

Urriaren 26an sinadura digitalak zein paperezkoak entregatu genituen Kongresuan, baina ez gara argazkiarekin konformatuko; 225.000 sinadura baino gehiagok berretsitako eskariei erantzuna ematea eskatzen dugu, eta eskatzen dugu urtea amaitu baino lehen gure pentsioen erosteko ahalmenaren galera konpentsatzea.

Berresten dugu eredu ekonomikoaren egungo krisiaren alternatiba ez dela gutxi batzuek gero eta aberastasun gehiago izatea gero eta pertsona gehiagoren kontura, ezta baliabide publikoekin energiaren oligopolioen eta finantza-oligopolioen onurak bermatzea ere. Onartezina da, adibidez, Ibex 35eko enpresek irabazien errekorrak lortu izana (aurtengo lehen seihilekoan soilik 48.868 m€).

Konponbidea lanarekin sortutako aberastasuna ekitatez banatzea da, eta, horrela, soldaten eta pentsioen erosteko ahalmenaren galera berreskuratzea, baita genero-arrakalarekin amaitzea eta zerbitzu publiko unibertsalak bermatzea eta hobetzea.

Urriaren 15eko helburuak beteta, azaroaren 19an mobilizazio historikoa lortzeko ahaleginak biderkatu behar dira, bai Euskal Herriko hiriburuetan, bai Estatuko gainerako Herri eta Erkidegoetan.

Pentsioen eta soldaten aberastasuna ekitatez banatzeko eta erosteko ahalmena berreskuratzeke eskakizunak batzen gaitu pentsiodunak, langileak, emakumeak eta gazteak, baita erakunde sozial eta sindikalak ere, eta guztion artean gure kaleak beteko ditugu **azaroaren 19an**.

Ez da manifestazio bat gehiago; borroka hau irabaziko dugula bermatzeko behar dugun manifestazioa da.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Txapak paparrera, badator EUSKARALDIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da **Euskaraldia**

Ate-joka dugu **3. EUSKARALDIA**, euskararen erabileran eragiteko asmoz, bi urtetik behin antolatzen den ariketa kolektibo erraldoia. Aurtengoa, azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da, eta izen-emate kopuruari erreparatzen badiogu behintzat, parte-hartze handia izango du Oñatin.

Euskaraldia antolatzen ari den herri batzordeak ahalegin berezia egin du entitateen parte hartzea areagotzeko, eta erantzuna oso ona izan da. Guztira 80 entitatek (dendak, enpresak, banketxeak, elkarte gastronomikoak, kultur eta kirol elkarteak, sindikatoak, zerbitzu publikoak...) hartu dute euskaraz aritzeko konpromisoa, barne funtzionamenduari begira, edo kanpora begira.

Norbanakoei dagokienez, berriz, dagoeneko 1.000tik gora dira *Ahobizi* edo *Belarriprest* roletan aritzeko izena eman duten herritarrek. Gogoratu, dena den, izen-ematea zabalik dagoela azaroaren 18ra arte **euskaraldia.eus** atarian.

Aurten gainera, Euskaraldiarekin batera HIKALDIAN parte hartzeko aukera ere badago. Hikaldian parte hartzen dutenek, *Ahobizi* edo *Belarriprest* izan, ondoko irudikoa bezalako 'H' hizkia ipiniko dute txapan, eta hika hitz egiteko edo, gutxienez, entzuteko prest daudela esan nahiko du. **www.hikaldia.eus** atarian eman behar da izena.



Gogoratu dena den, kantitatea baino garrantzitsuagoa dela kalitatea, eta Euskaraldiak proposatzen digun ariketa gogoz egitea, denon artean bultzada eman diezaiozun euskararen erabilerari.

----- OHARRAK -----

► TXAPAK JASOTZEKO

'Gure Esku Dago' taldeak Kale Barrian erabili izan duen lokalean banatuko dituzte Euskaraldiko txapak, honako egunotan:

- Goizez (11:00-13:00): azaroak 9 eta 14
- Arratsaldez (18:00-20:00): azaroak 7, 9, 14, 15, 16, 17 eta 18

----- EGITARAUA -----

► GIROTZE EKITALDIA / Azaroak 5

Azaroaren 5ean, larunbata, Foruen plazan, eguerdiko 13:00etan. Poesia irakurraldia, Sebastian erraldoiaren dantzaldia, heriko bi abeslariren kantu saioa... Euskaraldiaren inguruan duten esperientzia eta espektatibaren inguruan berba egingo dute hainbat herritarrek.

► MINTZODROMOA / Azaroak 26

Kafe-tertulia formatoan, euskararen inguruan gogoeta egiteko aukera egongo da. Kontzejupeian, 11:30etan.

► HAUR JOLASAK / Azaroak 2

Gaztelekuan, 17:00etatik aurrera.

► ANTZERKIA / Abenduak 1

Patxo Telleriak idatzitako *Alderray* antzezlan

► KONTZERTUA / Abenduak 2

Etxepe eta Nizuri Tazuneri taldeen kontzertua Gaztetxean (22:00). Aurrez (20:00) takoak jateko aukera egongo da.

► KONTZERTUA / Abenduak 3

Potemkin, *Rodeo* eta *John Dealer & The Coconuts*, Gaztelekuan, 22:00 (10€).



Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com



Gure ekintzen berri emango duen atala...

OÑATIKO GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO DIRU LAGUNTZEN DATUAK 2022

2022an ere, Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak, Oñatiko gazteen emantzipazioa lortzeari zuzendutako diru laguntza lerroa martxan izan du, eta berriro ere 35 urte arteko herritarrek eskatu ahal izan dute. Aipatzea laguntza hauen xedea ondorengoa dela: Oñatiko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18 eta 35 urte bitarteko herritarrei etxebizitzaren alokairu-gastuen zati bat ordaintzea. Horrekin, alde batetik, Oñatiko Udalak herriko gazteen emantzipazioan laguntzea du helburu. Baina beste alde batetik, gazteak alokairuko etxebizitzaren erabiltzaile nagusi diren neurrian, pairatzen duten alokairu-prezioetan ere eragin nahi du, egun existitzen diren alokairu altu horiek jaisteko helburuarekin.

Helburu horiek kontuan hartuta, zortzigarrenez, emantzipaziorako diru-laguntzak banatu ditu Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak, eta une hau momentu egokia ikusten dugu diru-laguntzen eta bilakaeraren balorazioa egiteko.

Aipatzekoa da azkeneko urteetan eskaera kopurua egonkortuta bazegoen ere, aurtan berriro igo dela. Horrela aurtan 42 eskatzaile izan ditugu, iaz baino 5 gutxiago. Honen arrazoia Eusko Jaurlaritza kontzeptu berdinean ematen ari den Gaztelagun izeneko diru-laguntza da, diru sarreraren arabera gure gazteek Eusko Jaurlaritzan diru-laguntza eskatzera behartuta baitaude. Dena den, gure gazte onuradun guztien artean berriro ere 65.000,00 € inguru banatu direla azpimarratu beharrean gaude. Argi dago aurtan ere Oñatiko gazteen artean diru laguntza honek izan duen eragina nabarmena dela.

Horrekin batera, bada beste datu aipagarri bat, berriro ere nesken eskaera-kopuruak gora egin duela, eta laugarren urtez nesken emantzipazio kopurua altuagoa de mutilena baino, 29 neska eta 13 mutil. Neska gazteen kolektiboan positiboki eragiten ari gara, inolako zalanztza barik.

Eskatzaileen perfilaren inguruan, adina da nabarmentzeko beste datu bat, eskatzaileen gehiengoa 30 urte edo gutxiago baitauka, %74a hain zuzen ere.

Gauzak horrela, laburbilduz, berriro ere Oñatiko Udalaren izenean irakurketa oso positiboa egin beharrean gaude. Zalanztza barik gazteengandik jasotako eskaera bat asetzen ari garelako, Oñatiko gazteen ongizatean zuzen eragiten gainera.

Ion Lopez Santamaria

Haur eta Gazteria Teknikaria

AGENDA

Azaroak 4 Kartoizko eskulanak (Ludoteka). **Azaroak 4-5** Erasmus +: Ibarrako Gaztelekukoekin elkartrukea (Topalekua). **Azaroak 6** Zeramika margoketa (Kuboa). **Azaroak 11** Buztinarekin jolasean (Ludoteka). **Azaroak 13** Frontenis txapelketa (Kuboa). **Azaroak 18** Buztina margotu (Ludoteka). **Azaroak 20** 09:00, Oñatiko XVIII Xake Txapelketa. **Azaroak 25** Txapa eta mural feminista (Ludoteka). **Azaroak 25** 22:00, Kontzertua: Brigade Loco, Bull Brigade (Italia), State Alerta (Gaztelekua). **Abenduak 3** Euskaraldiarekin lotutako jolasak (Gaztelekua). **Abenduak 3** 22:00, Kontzertua: Potemkin, John Dealer and The Coconuts, Rodeo (Gaztelekua).



oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK

AZAROKO MENDI IRTEERA / azaroak 20

Oñatiko mugarrak - Urkilla mendikatea

'Oñatiko mugarrak' ekimenarekin jarraituz, laugarren ibilaldia Arabako mendietan izango da, Urkilla mendikatean. Urbiatik pasata, 51. mugarrari, Arzanegin, hartuko dugu Oñatiko muga, Asparrenarekin. Mugarriz mugari jarraituko dugu, San Millanekin muga eginez, 65. mugarriraino, Artaso gainean. Handik Arantzazura bueltatuko gara. Guztira 17km (+1100m.), 6 bat ordutan egitekoa. Ez du zailtasun teknikorik. Irteera **azaroaren 20an** izango da, goizeko 8etan Postetxe parean. Izena emateko azken eguna, **azaroaren 17a**, Aloña Mendi tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Bazkideek, 10€. Federatuta egon behar da.



Mendiko federatu kanpaina abian

Aloña Mendiko Mendi sailak abian jarri du 2023 urterako federatu kanpaina. Aurtengo federatuei automatikoki berrituko zaie txartela, kontrakorik adierazi ezean, egun duten estaldura maila berbera mantenduz.

Aldaketaren bat egin nahi izanez gero (baja eman, helbide edo bankuko kontu zenbakia aldatu, harremanetarako telefonoa edo emaila, gehigarri gehiago, gutxiago...) **azaroaren 20a** baino lehen jakinarazi beharko dute.

Mendi saileko ordezkariak elkartearen bulegoan egongo dira **azaroaren 8, 9, 15 eta 16an** (19:00-20:00) aldaketak eta federatu berrien tramiteak bideratzeko. Emaliez ere egin daitezke tramiteak, alonamendi.mendi@gmail.com helbidera beharrezko informazioa bidalita.

Federatu **TXARTEL ARRUNTA**rekin estatu mailan egongo gara babestuta, Espainako Pirineoak barne. Frantziar Pirineo-tara pasatzeko, **PIRINEOAK** gehigarria behar dugu. Gehigarri honekin, Andorran, Portugalen eta Atlasen ere babestuta gaude. Alpertara joateko **MUNDUA** gehigarria behar da.

FEDME gehigarriarekin, aterpetxetan deskontuak izango ditugu (Kataluña izan ezik) eta Espainiako federazioak antolatutako ekintzaetan parte ahal izango dugu (kurtsilloak, lasterketak...).

Mendi eskia babestuta dago mendi txartelarekin. Pistako eskiak gehigarri berezia behar du, **ESKI** ala **SNOWBOARD**.

Mendiko bizikletak **BTT** gehigarria behar du.

Golden Trail



MENDI LASTERKETAK 'Golden Trail Series' zirkuituko finala jokatu zen urriko azken egunetan Madeiran (Portugal). Bost etapako goi-mailako hitzordu gogor honetako Open kategoria irabazi du Malen Osa Ansak. Elite mailako sailkapenean, seigarrena izan zen oñatiarra.

Emaitza onak karatean

Aloña Mendiko karatekek emaitza oso onak lortu zituzten urriaren 16an Hondarribian jokaturako Gipuzkoako kadete, junior eta 21 urte azpikoen txapelketan. **Claudia Martinek** urrezko domina eskuratu zuen Kadete (-54kg) mailako Kumite modalitatean, eta brontzezkoa katetan. **Alazne Unzurrunzagak** (sub21 / -61kg) zilarrezkoa kumitean, eta brontzezkoa katetan.







Ontziratze-soluzioen diseinu eta fabrikazioan
espezializatutako enpresa hainbat lanpostutara apuntatu
nahi duten pertsonen bila ari da:

- Ingeniaritza Elektronikoa
- Ingeniaritza Mekanikoa
- Muntaketa
- Mekanizatzua
- Galdaragintza

Gehiago jakin nahi duzu?
Eskaneatu QR kodea!





© Sergio Gil

MOTORRA MONIKA MUÑOZ ETA NAIA LASABAGATER AMA-ALABAK

«Zaila, baina ederra izaten ari da bidea»

> **Uztailean istripu larria izan zuten Eskoriatzako rallysprintean.** Zorionez, susto handi hura gainditu eta Espainiako txapelketan parte hartu dute denboraldia amaitzeko.

Euskadiko automobilismo denboraldia amaitu berritan, Monika Muñoz eta Naia Lasagabasterrekin berba egin gura izan dugu, arrazoi askorengatik: ez delako batere ohikoa ama-alabak ikustea tandem osatuz oraindik ere oso maskulinoa den kirol honetan; uztailean istripu larria izan zutelako Eskoriatzako rallysprintean; eta, zorionez, susto handi hura modurik onenean

3

**DENBORALDI OSATU
DITUZTE ELKARREKIN**

gainditu dutelako, Espainiako txapelketan parte hartuz.

Azkenengotik has gaitezen. Irailaren 24-25ean Llanesen jokatu zen Espainiako rally txapelketan parte hartu zenuten. Zer moduz?

Oso ondo. Kirol honetan emakumearen presentzia areagotzeko Foru Aldundiak duen programa bati esker parte hartu ahal izan genuen

bertan. Hiru edo lau bat hilabete lehenago landutako proiektu bati esker federazioak geuri eskaini zigun Llanesera joateko aukera, eta Peugeot 208 Kopan parte hartu genuen alokatutako kotxe batekin, eta esperientzia oso positiboa izan zen.

Gogorra izan zen rallya. Gauéz irten ginen 19 km.-ko tarte batean, kotxea ezezaguna zen guretzat, guztira kronometratutako 140 km. (enlazeekin 500 km. inguru)... baina ondo moldatu ginen eta, gainera, gure klaseko autoen artean azkarrenak izan ginen.

Baina, emaitzak emaitza, guretzat inportanteena zen geure buruak berriz lehiatzen ikustea, uztaileko istripuaren ondoren, eta egia esan, oso ondo etorri zaigu beldurrak uxatzeko. Nik (Monika) banekien bueltatzeko gai nintzela, orain dela bost urte ere izan nuelako beste istripu bat Jaizkibelen, baina Naiarentzat berria zen egoera. Beraz, beldur pittin batekin joan ginen, baina, dena oso ondo atera zen, eta eskertuta gaude eman diguten aukeragatik.

Bistan dago gaindituta duzuela uztaileko istripua, baina ez zen txantxetakoia izan, ezta? Nola gertatu zen?

Nahikoa larria izan zen, bai. Eskoriatzako rallysprintean gertatu zen. Zorte txarra izan genuen. Balaztaren pedalak pasadore bat dauka eta, nonbait, poliki poliki pieza hori askatuz joan zen, eta tramo azkar baten bukaeran bihurgune estu batera iritsi ginen, eta balazta sakatzan saiatsu nintzenean, ez zegoen pedalik. Martxa bat jaitsi nuen, baina, alperriki, bihurgune oso estua zen, eta errepideetik atera ginen, iztulipurdika, lau bat buelta eman genituen.

Eta ondorioak?

Nik (Monika) beltzune txiki

bat besterik ez hankan, baina Naiak zorte txarragoa izan zuen; atearen markoa barrura sartu zen eta hainbat saihests apurtu zizkion. Zorionez, ondo errekupeatu da.

Ez zitzaizuen burutik pasa "Kitto, honaino iritsi gara" esatea?

Momentuan bai. Anbulantzia-
ren zain geundela komentatu
genuen agian hura izango
zela azken karrera, kotxea
konpontzea oso garestia
delako, baina, zorionez, au-
toaren mekanika ez zen hon-
datu, txapa kontua izan zen
gehiago eta, gaitzerdi.. Gai-
nera, lagun batzuek karrozeria
bat oparitu digute, lagun talde
oso ona daukagu inguruan,
eta, poliki poliki, denon artean
lortuko dugu kotxea puntuan
jartzea berriz ere.

Behin baino gehiagotan entzun beharko zenuen, Monika, ez ote duzun bi aldiz pentsatzen azeleragailua sakatu aurretik aldamenean alaba doala ikusita?

Bai, askotan entzun behar izan dut. Alabarekin noane-
tik astiroago gidatzen dudala
ere esaten didate beste pilotu
batzuek, baina ez dut uste.
Kotxean sartzen zarenean
ezin duzu gauza horietan
pentsatu, bestela ez ginelako
sartu ere egingo. Badakizu
arritsu puntu bat dagoela,
baina bizitzan gutxien uste
duzunean gertatzen dira
ustekabeak. Behin kotxean
sartuta, ahalik eta ondoen
gidatzen eta ahalik eta gehien
disfrutatzen saiatzen gara.

Zer moduz moldatzen dira ama-alabak kotxe barruan eta ziztu bizian doazela?

Karreraren goazela zentratuta
joaten gara. Entrenamendu
saioetan sortzen dira hase-
rreak, tarteka, baina adiski-
detu ere segituan egiten gara.
Ordu asko pasatzen ditugu
elkarrekin eta horrek batu egi-
ten zaitu. Nik (Monika) askori

*«Emaitzak emaitza,
gure buruak berriz
lehiatzen ikustea
zen inportanteena»*



Monika eta Naia
Gabiriako Rallysprintean

*«Kopilotu lanetan
emakume gehiago
dabil. Pilotuak,
gutxiago gara»*



Naia eta Monika auto barruan, denboraldiko proba batean. © Ander Zelaia

entzuten diet alabarekin ez
dutela ia berbarik ere egiten,
eta niretzat gauza handia da
Naiarekin komunikazio hau
edukitzea eta berarekin parte-
katzea bioi gustatzen zaigun
kirol hau.

Emaitza polit batzuk ere lortu dituzue, ezta?

Bai, 2021ean gure klaseko
txapelketa irabazi genuen
Euskadi mailan, eta Naia 3.a
izan zen kopilotuen sailkapen
orokorrean.

Estatu mailan ez, eta mundu mailan ere ez dakit ba ote den beste ama-alabarik bikotea osatuz rallyetan, baina, edozein modutan, emakume gutxi ikusten dira oraindik automobilismoan.

Ez pentsa. Egia esan, kopilotu
lanetan gero eta emakume
gehiago dabil. Arinagoak ga-
renez, pilotu batzuek emaku-
mezkoa nahi izaten dute al-
damenean.

Pilotuak askoz gutxiago
gara, bai. Euskadin lau bat
izango gara, eta horietako bi,
Maider Usandizaga eta neu,
Oñatin. Egia esan, Oñatin
beti egon da afizio handia
motor kontuetan eta polita da
jarraipena duela ikustea.

EMAKUMEAK automobilismoan

> Gutxi, oso gutxi dira
oraindik emakumeak
automobilismoan.
Horregatik, egoera
hori irauli nahian,
emakumezkoen talde
bat sortzeko proiektu
bat dute esku
artean Gipuzkoako
Foru Aldundiak eta
federazioak, Monika
Muñozek azaldu
digunez. "Bai, une
honetan zirkuitoan
gauden lauzpabost
emakumeokin jarri
dira harremanetan
—Maider Usandizaga
eta neu, tartean—.
Dena emakumez
—pilotoa, kopilotoa,
mekanikariak...—
osatutako talde bat
sortzea da asmoa,
federazioak utzitako
kotxe batekin Peugeot
206 Kopan lehiatzeko.
Egitasmo polita da,
baina zaila ikusten
dut aurrera irtetea,
inplikazio handiagoa
erakusten ez badute"

Zuk, Naia, ba al duzu pilotu aritzeko asmorik?

Egunen batean bai, baina
gida-baimena atera berria
daukat, eta oraindik asko
ikasi behar dut. Baina iritsiko
da eguna, eta lehen karrera
horretan aldamenean ama
joatea gustatuko litzaidake.

Zer moduz dago automobili- lismoa Euskadi mailan?

Makal samar, egia esan.
Karrerak antolatzeke oztopo
eta trabak non-nahi, fede-
razio barruan tira-birak, za-
leak ere nagi karrerak ikus-
tera joateko... Ez dago bere
momenturik onenean. Gaur
egun karreretan 30-40 kotxe
egoten dira, eta duela urte
gutxira arte 70etik gora iza-
ten ginen. Kantabria aldera
bazoaz, ehundik gora izaten
dira, eta beharbada kanpoan
geratzen zara.

Hurrengo denboraldirako asmo edo erronka berezi- rik? Elkarrekin jarraituko duzue?

Bai, elkarrekin jarraitzea da
asmoa. Kotxea berriz ere
martxan jartzea da gure
erronka nagusia orain, eta,
batez ere, disfrutatzen jarraitu
ahal izatea. ■



Iaz bezala, kiroldegko pilotalekuan izango dira kontzertuak, hilean behin

Azaroaren 13an hasiko da Musika Bandaren kontzertu denboraldia

Entzun-aldiak izenburupean, gai ezberdinen inguruko sei kontzertu berezi eskainiko ditu Aitor Biain Bidartek zuzentzen duen musika bandak, azaroan hasi eta maitzaera arte, hilean bat. Iaz bezala, aurtan ere kiroldegiko pilotalekuan izango dira kontzertuak. Dohainik izango dira emanaldiak, baina aurrez eskuratu beharko dira sarrerak.

Iaz bezala, aurtengo kontzertuetan ere estilo ezberdinetako musika eta erreperitorio berria eskaintzen jarraituko du bandak, publiko desberdina erakarri nahian, batez ere haur eta gazteak. Lehenengo emanaldia azaroaren 13an izango da, **Naturaldia** izenburupean, eta naturarekin lotutako sei pieza eskainiko dituzte: *Mercury* (J. Van der Roost), *Music from Jurassic Park* (John. Williams), *Suite for planets* (Gustav. Holst), *Utopia* (Jacob de Haan), *The magic mountain* (Otto M. Schwarz) eta *Fire and Ice* (Otto M. Schwarz).

HERRIKO ERAGILEEKIN ELKARLANEAN

Kultur eragile ezberdinak gonbidatuko dituzte aurtan ere musika bandaren kontzertuetara. Martxoko kontzertuan, adibidez, Bergarako Camden Town taldeko dantzariak parte hartuko dute, Broadway estiloko ikuskizuna eskaintzeko, eta apirilekoan -kontzertu pedagogikoa- Oñatz dantza taldeak eta erraldoi konpartsak parte hartuko dute. Musika Eskolako ikasle gaztetxoek eta Oñatiko Banda Gaztea taldeko kideak ere ariko dira bandaren emanaldi ezberdinetan.

Iaz 400dik gora herritar bertaratu ziren, batz bestea, musika bandaren kontzertuetara, eta aurtan ere ahalegin berezia egiten ari dira, jendearen gustuko emanaldiak prestatzeko.

Alaine Agirre idazlearekin solasean, Oñatin

Debagoieneko Antzerki Plataformak (DAP) antolatu duen 'Karo-2022' Antzerki Jaialdiaren baitan, Alaine Agirre idazlea etorriko da Oñatira, 'Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama' liburuari buruz hitz egitera. Gogoratu, Irazan Guneko Amaia Castañeda eta Irene Balzategi oñatiarrak liburu horretan oinarritutako antzezlanak prestatzen ari direla, eta prozesu hori herritarrekin partekatzea da hitzaldi-solasaldi honen helburua. Azaroaren 8an izango da solasaldia, kultur etxeko zine aretoan (18:00), eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

IRAZAN EGUNA

"Karo-2022" Antzerki Jaialdiaren baitan IRAZAN EGUNA egingo da azaroaren 19an. Oñatiko Irazan Guneko antzerki taldeek herriko kaleak hartuko dituzte antzerkiaren bidez.

Potemkin eszenatokietara itzuliko da

Hamaika urteren ostean eszenatokietara itzuliko da *Potemkin* rock taldea eta, oraingoz, lau kontzertu iragarri dituzte. **Azaroaren 25ean** Tolosako Bonberenean joko dute, *Sharon Stoner*-ekin batera; **azaroaren 26an** Bergarako Kartzela Zaharrean ariko dira; **abenduaren 2an** Ondarrun izango dira, eta **abenduaren 3an** Oñatiko Gaztelekuan.

Aitor Regueirok bere lehen diskoa aurkeztuko du

Aitor Regueiro musikari oñatiarrak *Hygge* izeneko bere lehen diskoa aurkeztuko du azaroaren 27an, Antixena gaztetxean, 12:30etan. Diskoan gitarra akustiko, elektriko, eta sintetizadoreak erabili dituen arren, zuzeneko emanaldian betiko rock formatuan aurkeztuko ditu abestiak.

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARKITEKTURA

Baserrien eraberritzeak • Isolatzaila fatxadak • Igogailuak

tel: 677 31 20 57 * amaiigartua@gmail.com

TARIFA PERFEKTUA: PREZIO BERAGATIK, **GIGA GEHIAGO**

FIBRA 300Mb

+ **MUGIKORRA 30GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

39,90€ /HILEAN
BEZ barne
Linearen kuota
barne.

BETIRAKO

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TELF: 943 090 600



ETA GEHITU
BESTE LERRO BAT 30GB
1€/HILEAN
LEHENENGO 6 HILABETEETAN

BEZa barne Eskaintza 2022/10/31ra arte salmentetarako balio du Fibrá 300Mb-ekin Tarifa PLUS 30GB-ekin kontratu-tzean 39,90 €/hileko beziko linearen kuota barne. 151,56ko deskontua 3 hilabeteko egonaldiaren menpeko instalazioan. Tarifa PLUS 30GB PROMO 1 €/hilean 6 hilabetez, gero 8 €/hilean; kontratu bakoitzeko leiro bat gehienez. Kontsultatu gainerako baldintzak www.masmovil.es/webgunean

MÁSMÓVIL

AHORRA, SIN MÁS


REV.
F. DE MADINA



TOWN HALL | FRIDAY EVENING at 8:30
APRIL 24, 1964

TOWN HALL

Affiliated with New York University
123 WEST 43rd STREET • NEW YORK 36, N. Y.



New Yorkeko Town Hall-etik Santa Ana aretora

Aita Madinaren omenez 1964an New Yorken egin zen kontzertua birsortuko dute **Ganbara** eta **Hots** abesbatzek **Azaroaren 6an izango da emanaldia, Santa Ana aretoan, 19:00etan**

1964ko apirilaren 24an kontzertu berezia egin zen New Yorkeko *Town Hall* areto entzutetsuan. Aita Madinaren musika sinfonikoari eskainitako emanaldia izan zen, eta kontzertu hura da, hain zuzen, Ganbara eta Hots abesbatzek birsortuko dutena, Madinaren heriotzaren 50. urteurrena gogoratzeko antolatu diren ekitaldien baitan.

New Yorkeko kontzertu hartan, Madinaren garai eta estilo ezberdinetako obrak interpretatu zituzten, Gerardo Levy orkestra zuzendari argentinarraren batutapean.

'Aita Gurea'-ren bertsio ingelesarekin (The Lord's Prayer) hasi zen emanaldia, eta, ondoren, 'In Memoriam of President Kennedy', 'La cadena de oro',

5

**eurotan eskura
daitezke
sarrerak
udalaren
webgunean eta
Txokolateixan**

Catamarca-ko (Argenina) Andre Mariari eskainitako oratorioa, eta 'Orreaga', baskoiek Carlomagnoaren armada garaitu zuten guduan oinarritutako suite-a interpretatu zituzten, azken biak Argentinan bizi izan zen garaian konposatutakoak.

Kontzertuaren bigarren zatian 'Tres canciones españolas: *Las Rosas*, *Villancico* eta *La Lotería*',

**Aitor Biain
Bidarte**

Ganbara
eta Hots
abesbatzen
zuzendria



» **Madinari New Yorken eskaini zitzaion kontzertu-omenaldiaren esentzia presente egongo da**

» **'Aita Gurea'ren 3 bertsio abestuko ditugu, eta hemen sekula entzun ez diren Madinaren pieza batzuk ere bai**

'Endecha: artzain baten erio-tzean' eta 'Salmo Ecu-ménico' obrak jo zituzten. Kontzertuko esku-orrian irakur daitekeenez, 'In Memoriam' eta 'Salmo Ecu-ménico' mundu mailako estreinaldiak izan ziren.

TOWN HALL-eko ESENTZIA OÑATIN

Aita Madinaren omenez, Town Hall aretoan egin zen kontzertu hura birsortzea da Ganbara eta Hots abesbatzen helburua, Aitor Biain Bidarte zuzendariak azaldu digunez. "Orkestrarik ez dugunez, ezin dugu orduko programa osoa egin, baina zati handi baten errekreazioa egin nahi dugu, eta sinbolikoki bada ere, Madinari eskaini zitzaion omenaldi haren esentzia presente egongo da. Gainera, hemen sekula entzun ez diren Madinaren pieza batzuk abestuko ditugu, hala nola, 'Illeta' eta 'Salmo Ecu-ménico'. Estreinaldiak izango dira publikoarentzat".

Kontzertu berezia eta ederra izango dela uste du Biainek, Aita Madinaren erreperatorio landuena eta, aldi berean, kuttunena entzuteko aukera egongo delako. "Madinak berak aukeratu zuen bere kontzertu monografikoan zer eskaini, eta hori zerbaitegatik

izango da. Hizkuntza musikaletik ikusita, obra landua eta moderna da, armoniaren erabilera eta orkestrazioari erreparatzen badiugu".

'AITA GUREA'ren 3 BERTSIO

Aita Madinaren eliz-kanta eza-gunena den 'Aita Gurea' hiru modutara abestuko dutela aurreratu digu Biainek. "Bai, ahots grabe, ahots mixto eta ahots zuriekin kantatutako hiru bertsio izago dira, azkena ingelesez. Belarrira berdintsu ematen badute ere, instrumentua (ahotsa) ezberdinda da, eta horrek berezi bihurtzen ditu hiru bertsioak". Ganbara eta Hots abesbatzekin batera, Amia Zipitria pianujoleak ere parte hartuko du kontzertuan, eta bakarlari lanetan Oihana Diaz, Nerea Ibarra, Aitor Garitano eta Cristina Cubillo ariko dira, denak ere Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean.

MADINA NEW YORK-en

Francisco Madina Igartzabal, Aita Madina (Oñati, 1907-1972) bere bizitzako azken etapan bizi izan zen New Yorken. Oñatin apeztu eta bi urtera (1931) Argentinara destinatu zuten eta han eman zituen, Salta eta Buenos Aires artean, ia 25 urte. Baina 50. hamarkadako bigarren erditik aurrera Kanonigo Lateran-darren Brooklyn eta Bronx-eko komunitateetan bizi izan zen.

Ingeles maila urriarekin iritsi zen New Yorkera, baina laster egokitu zen bertako bizigirora. Besteak beste, hedapen handiko 'La voz de América' irratsaioa zuzendu zuen, eta horri esker artista asko ezagutu zituen, besteak beste, *Los Romero* kitarrajole ospetsuak. Hauentzat konposatutako 'Concierto vasco para cuatro guitarras y orquesta' lana San Franciscon estreinatu zen arrakasta handiz. Kitarrajole espainiarrak eta Nicanor Zabaleta harpa-jotzaile donostiarra izan ziren Madinaren musikaren enbaxadore onenak mundu mailan, eta luzaroan interpretatu izan zuten oñatiarraren musika, hura zendu eta gerora ere.

• OÑATIKO MUSIKEGUNAK •

Aurtengo Oñatiko Musikegunetan Aita Madinaren musika izango da protagonista. Urrian egin ziren bi kontzertuez gain (Oñati Abesbatza eta Suhar), azaroan Madinaren omenezko bi kontzertu izango dira: Ganbara eta Hots abesbatzena, eta Txorbela Otxotearena. Horiez gain, Gloria de Piante piano-jotzaile italiarraren kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu.

► AZAROAK 13, igandea / Santa Ana, 19:00 GLORIA DE PIANTE



Italian, Estatu Batuetan eta Suitzan egin zituen piano ikasketak Gloria de Piante Vicin italiarrak. Bakarlari eta ganbera-musikari gisa aritu izan da Europa, Estatu Batuak eta Ekialde Ertaineko kontzertu areto nagusietan. Azkenaldian, besteak beste, Straussen *Burlesque*-n bakarlari gisa aritu da Italiako Orchestra della Svizzeraarekin, eta Chopin-en 2. Kontzertuaren op. 21 interpretatu du, Orchestra Arcadiarekin.

► AZAROAK 27, igandea / Santa Ana, 19:00 TXORBELA OTXOTEA



Txorbela otxotea Arrasaten sortu zen 2008an, gure kultur ondasunaren zati diren herri-kantak berreskuratzeko asmoz. Egun 16 abeslarik osatzen dute taldea, inguruko abesbatza garrantzitsuetan aritu diren edo dihardutenak, denak ere. Euskal Herrian ez ezik, estatu mailan eta hemendik kanpo ere eman izan dituzte kontzertuak. Oñatiko emanaldian Aita Madinak konposatutako hainbat obra kantatuko dituzte, eta Aitor Olea organo jotzaile durangarraren laguntza izango dute. (Sarrera, 5€).

Beratu jaialdia

azaroaren 11tik 13ra



Azaroak 11, ostirala, Antixea gaztetxean, 22:30

La élite

punk elektronikoa, Kataluniatik

Lleidako (Katalunia) Nil Roig eta David Burgués lagunek 2016an sortutako taldea da *La élite*, synth-punk estiloko taldea, pop melodiak eta punkaren energia eta letrak maisuki uztartzen dituenak. Zuzeneko indartsu eta subertsiboen bidez, gaur egungo arazoak jorratzen dituzte abestietan, ukitu elektroniko eta melodia itsaskorren bidez, Eskorbuto edo Parálisis Permanente bezalako 80ko punk taldeen esentzia gogora ekarriz. Sarrera, 5€



Azaroak 12, larunbata, Eltzia tabernan, 18:00

Yaima Orozco

Kubako trova berriaren erakusle

Musikagile, kitarrajole eta abeslari kubatarra da Yaima Orozco (Santa Clara, 1980), Trova berriaren erakusle behinenetako bat. Erregistro zabaleko, maisutasun teknikoko eta kolore erakargarriko ahots baten jabe da, baxuaren berotasunetik agudo distiratsuetaraino doana. Kubako musika tradizionalaren hainbat genero birstortzen ditu, hala nola, guajira, boleroa, danzona eta sona, Hego Amerikako folkloreari, Brasilgo musikari eta nazioarteko pop doinuei ere leku eginez. Kubako Trova zaleen artean ahots ezaguna ez ezik, nazioartean onarpena duen artista ere bada, Espainia, Argentina eta Suitzan egin izan ditu emanaldiak, besteak beste. Dohainik.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21



SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egurrezko labea egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

Pandemiak baldintzatuta egon da azken urte hauetan BERATU jaialdia, eta aurtengoa ere, udazkenara atzeratzea erabaki zuten antolatzaileek, aforo muga barik ospatu ahal izango zela ziurtatzeko. Udaberrian izan, ala udazkenean izan, kontua da hemen dugula berriz ere BERATU jaialdia, bosgarrena, eta lau kontzertu ederrez gozatzeko aukera izango dugula azaroaren 11tik 13ra. Jaialdiaren esentziari eutsiz, musikaren eszenako proposamen berriak ezagutu eta musikaren alde hurbilaz gozatzeko aukera eskaintzen digu BERATUK.



zuzeneko musika eta irudiak uztartzen dituen ikuskizuna da #mauriziaketzduinorhil#, orain arte oso herri gutxitan ikusi ahal izan dena

Azaroak 12, larunbata, Gaztelekuan, 20:30

Mauriziak Ez Du Inor Hil euskal folklore digitala

Ines Osinaga, Olatz Salvador eta Lorea Argarate musikariek sortutako zuzeneko ikuskizuna da #Mauriziaketzduinorhil#. Kopla zaharrak eta Maurizia Aldeiturriagaren iruditeria oinarri hartuta (erromerietan jardundako lehen emakume pandero jotzailea), euskal folklorea formatu digital berrietan ematea helburu duen proiektua. Panderoak, gitarak eta bonboak jotzen dituzte, eta irrintziak jaurti. Zuzeneko musika eta irudiak uztartzen dituzte, grabazio zaharretako ahotsen sanpleak sartuz eta live loopipng-a eginez. Doinu tradizionalei gaur egungo eszenan espazio bat eskaintzeko eta plazandreei gorazarre egiteko, teknologia zahar eta berriekin sortutako proiektua da. Sarrera, 10€ (aurrez 8€).



Azaroak 13, igandea, Lazarraga parkean, 13:00

Goxua n'Salsa saltsa musika, euskaraz

Musikari nafar eta kolonbiarrak elkartu eta 2020ko urtarrilean sorutako taldea da. New York, Kolonbia eta Puerto Ricoko 60., 70. eta 80. hamarkadetan inspiratutako saltsa klasikoa jotzen dute, baina berezitasun batekin, izan ere euskaraz kantatzen baitute. Hiru ahotsetako abesbatza, pianoa, baxu elektrikoa, kongrak, danborrak, marakak, tronpetak eta tronboiek osatutako saltsa formazio klasikoa da, emakume batek (ahots nagusia) eta hamalau gizona osatua. Dohainik. (Euria bada, Gaztelekuan).



Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua komprometzu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



KONTZERTUAK

AZAROAK 6 / 19:00

GANBARA ETA HOTS ABESBATZAK

Sarrera, 5€. *Santa Ana aretoan*

AZAROAK 18 / 22:00

SEGA SOUND KILLERS + LOTURA

Sarrera, 8€ (soldatagabeak 3€). *Antixena gaztetxean*

AZAROAK 20 / 19:00

GLORIA DE PIANTE

Piano jotzaile italiarraren kontzertua,
Sarrera, 5€. *Santa Ana aretoan*

AZAROAK 25 / 22:00

**BRIGADE LOCO + BULL BRIGADE
+ STATE ALERTA**

Sarrera, 12€. *Gaztelekuan*

AZAROAK 27 / 12:30

AITOR REGUEIRO

Lehen diskoa aurkeztuko du. *Gaztetxean*

AZAROAK 27 / 19:00

TXORBELA OTXOTEA

Sarrera, 5€. *Santa Ana aretoan*

ABENDUAK 2 / 22:00

ETXEPE + NIZURI TAZUNERI

Euskaraldiaren harira. *Gaztetxean*

ABENDUAK 3 / 20:00

**POTEMKIN + RODEO + JOHN DEALER
AND THE COCONUTS**

Sarrera, 10€. *Gaztelekuan*

ERAKUSKETAK

**AZAROAREN 6ra ARTE
SEILU ERAKUSKETA**

Oñatiko Filatelia eta Numismatika taldeak antolatuta. Lau gai ezberdinen inguruko seilu bildumak daude ikusgai: *Trenak, Loreak, Maila-art* eta *Emakumeak*. *Kultur etxean*, egunero (18:00-20:00).

'DANTZA-JAUZIAK' IKASTAROA

Oñatiko musika eskolak antolatuta, 'Dantza-Jauziak' ikastaroa egingo da azarotik ekainera bitartean. Astearteetan (18:00-19:00) izango dira saioak, Txantxiku ikastolako aretoan, **azaroaren 8an** hasita.

Patxi Montero dantza-maisuak gidatuta, 'Erdizka, jauzi, dobla, pika, ebats...' dantzak ikasiko dituzte bertan. Jatorriz Iparraldekoak dira, baina gaur egun Euskal Herri osora zabaldua daude, eta sarri dantzatzen dira erromeria, dantzaldi eta bestelako ekitaldietan. Informazioa eta izen-ematea: 943783174 / idazkaritza@jazpiasmusikaeskola.com



IKUSKIZUNAK

AZAROAK 13 / 19:00

'HUMOR FEMINISTA PARA TU CONSUMO'

Emakumeentzako Jabetze Eskolaren baitan antolatutako bakarrizketa saioa, Belén Nevado, Silvia Albert Sopale eta Elsa Ruizen eskutik. *Santa Ana antzokian*.

AZAROAK 26 / 16:30 eta 18:00

PAILAZO EMANALDIA



Tomaxen Abenturak pailazo taldea 'Adi, grabatzen, ekin!' ikuskizuna eskainiko dute. Urgaineko guraso elkarteak antolatuta Sarrerak (5€) azaroaren 3 eta 4an Urgainen (16:30), eta hortik aurrera Txokolateixan. *R. M. Zuazola Antzokian*

AZAROAK 16 / 18:30

**GAZTAINAREN BERRESKURATZE
AUKERAK GAUR EGUN**

Hizlariak: Joseba Ibargurengoitia (Euskal Herriko Hazien Sarea) eta Beñat Itoiz (Euskal Gaztain Etxearen sortzailea). *Kultur etxean*

AZAROAK 29 / 19:00

**EUSKARAREN KOLAPSOA ALA
KOLAPSOAREN EUSKARA?**

Hizlaria: Joanes Igeregi. Balizko kolapso ekonomiko batek euskarari zer eragin izango lukeen aztertu du hizlariak. STH taldeak antolatuta. *Antixena gaztetxean*

IKASTARO-TAILERRAK

AZAROAK 5 /

LIHO LANDAREAREN ERABILERA

Arantzazuko Parketexeak antolatuta, liho landarearen erabilera Euskal Herrian, makrame ikastaro batekin.

HITZALDI-TERTULIAK

AZAROAK 8 / 18:00

'BI ALDIZ ERDITU ZINEN NITAZ, AMA'

Hizlaria: Alaine Agirre, idazlea. Bere nobelaren antzerki sormen prozesuaren baitan. *Zine aretoan*

LEHIAKETAK

AZAROAK 5 /

OÑATIKO XIII. LABURMETRAI RALLYA

Santa Ana antzokiko emanaldirako sarrerak arratsaldeko 17:00etatik aurrera banatuko dituzte antzokiko sarreran.



Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiastui Kortabarria
Irakaslea

www.4sgoiena.com

Arantzazuko Ama, 3 behe • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
943 53 36 57 • 4sgoiena@gmail.com

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

IPUIN KONTAKETA

'Bizarurdirin'



Ostegun kontalariak
ekimenaren baitan,
4-5 urteko haurrei
zuzendutako ipuin
kontaketa saioa egongo
da azaroaren 24an,
udal liburutegian. Maite
Franko ipuin kontalariak
'Bizarurdirin' saioa
eskainiko du. Ordu erdiko
bi emanaldi izango dira,
17:30etan eta 18:15etan.
Izen-ematea, azaroaren
14tik aurrera.

LITERATUR TERTULIXAK

Udal liburutegiko
euskarazko irakurle
taldeak azaroaren 15ean
(18:30) egingo du hil
honetako saioa, Miriam
Lukik dinamizatuta,
Soniexka (Ludmila
Ulitskaia) liburuaren
inguruan. Gaztelerazko
irakurle taldea azaroaren
29an (18:30) elkartuko da
eta **Obra maestra** (Juan
Tallón) liburuaz aztertuko
dute, Mónica Leivak
dinamizatuta.
Bestalde, Idazketa
Lantegiko taldeak bi saio
egingo ditu, azaroaren
7 eta 28an, Joxe Mari
Iturralkdek gidatuta.



Hilleko gomendioa

2021eko Angoulêmeko
epaimahaiaren sari be-
reziaren irabazlea; The
Guardian-ek 2020ko ele-
berri grafiko onena auke-
ratua eta 2021eko nazioar-
teko eleberri grafiko one-
naren Max eta Moritz saria
jaso duena, Dragmanek
August Crimp gizonaren
istorioa kontatzen du.

ZINEA



Azaroak 3 - 7

ZINE KLUBA:

Un amor en
Escocia

NAGUSIAK:

Los renglones
torcidos de Dios

GAZTETXOAK:

Mia y yo: La leyenda de
Centopia



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)

Nagusia: Ostirala (22:00), larunbata

(22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00).

Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)

Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Azaroak 10 - 14

ZINE KLUBA:

Teneis que
venir a verla

NAGUSIAK:

En los
márgenes

GAZTETXOAK:

Hooper oilaskoerbia



Azaroak 17 - 21

ZINE KLUBA:

Compartimento
Nº 6

NAGUSIAK:

El cuarto
pasajero

GAZTETXOAK:

Lilo, mi amigo cocodrilo



Azaroak 24 - 28

ZINE KLUBA:

El acusado

NAGUSIAK:

Un año, una
noche

GAZTETXOAK:

Los buscamundos



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16

Azaroak 9, 10, 18, 19, 20, 28 eta 29.

Abenduak 6 eta 7.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22

Azaroak 3, 11, 12, 13, 21, 22 eta 30.

Abenduak 1, 9, 10 eta 11.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58

Azaroak 4, 5, 6, 14, 15, 23 eta 24.

Abenduak 2, 3 eta 4.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28

Azaroak 7, 8, 16, 17, 25, 26 eta 27.

Abenduak 5 eta 8.



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZA

salgai Oñatiko
erdigunean (82m²). Bista ederrak eta
oso argitsua. Deitu: 655 720 404

GARAJEA

Garaje bat alokatzen da

Ugarkaldeko 13-17an. 645719884

LOKALA

Bulego edo zerbitzu
jarduerarako lokala/espazioa (17m²)
alokatzen Euskadi Etorbideko 7an.
Deitu: 645 719 884

ETXEBIZITZA

Lan finkoa duen
Oñatiko bikote gaztea alokatzeko
etxebizitza bila. Deitu: 626 857 023

ODOL ATERALDIA

AZAROAK 11 / 16:30-20:30

Enpresagintza fakultatean. Txanda
hartzeko, deitu: 943 007 884



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net f i



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



(*) Itten: arrastua, pistia

>> PASADIZUA

'Hiretako bostehun eta neretako beste bostehun!'

Herriko fabrika bateko bi langillari, Joxeaundiri eta Balentiñeri, ofiziala bata eta pioia bestia, diar egin ostean egun baten nagusixaren etxeko sukaldia barriztattera fateko. Jabiaren etxia izanda, lana egindakuan propiña on bat jasoteko esperantziarekin egozen, eta poz horrekin ekin otsain obriari. Lana akabotakuan, diar egin otsain señoari oneritzixa emun egixen. Señoia etorri, obria ikusi, eta honela esan osten:

— *Lan ederra egin dozue, mutillak. Milla esker!*

Eta besteriko barik agurtu zittuan.

Eskupekuaren zain egozen langillioik, ha entzundakuan alkarrerri begiratu, eta ofizialak langillari:

— *Hi, Balentin, hiretako bostehun eta neretako beste bostehun!*

Eta halaxe urten euen etxe hartatik, broma antzian, baxoerdi bat edateko propiñatxua be jaso barik.



Ofiziala eta pioia lanian

>> ASMAU: '-ETXE' OSAGAIXA DAKOIN BERBAK

Lotu -ETXE osagaixa dakoin berba honeik bakoitza bere esanguriarekin (1):

- | | |
|--------------------------|---|
| 1. Jaztetxe | a.- Burutik egindda dagueu jentia atenditeteo etxia |
| 2. Gaztetxe | b.- Ogixa egitteko labia dakon etxia |
| 3. Zoroetxe | c.- Uraren bittartez argindarra sortzeko makiña dakon etxia |
| 4. Makiñetxe | d.- Ezkonketan dan bikotiak hartzen dauen etxia |
| 5. Txorietxe | e.- Gaztiak gobernaitten dauein etxia, euren gustuko ekintzak antolaitteko |
| 6. Artetxe | f.- Hutsik dagueu etxia |
| 7. Saletxe | g.- Abadia bizi dan etxia |
| 8. Ogiexxe | h.- Ardixak gordeteko etxia. Artegixa. Leku batzuetan harrizko eskortia |
| 9. Farretxe / Paterretxe | i.- Ardixendako, negurako, bedar igarra gordeteko ebalten dan etxia edo itxabolia. Artegixa |
| 10. Ezkontetxe | j.- Baserrittarrak kalera etorritakuan erropia aldaketako eukitten euen etxia |

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



Aitta Madina eta Irrintzi zortzikotia

Aurten bete da, ondtxo dakitzueenez, **gizaldi erdi Aitta Frantzisko Madina Igartzabal** (1907-1962) musikagille oñatiarra **ahil zala**. Hori dala eta, urtian zihar **hainbat kontzertu** antolatu dira herrixan eta hemendik kanpora bere **omenez**. Izan be, benetan merezi dau gogoraketia Txipitxailleko semiak burututako lan ikaragarria. Abade eta irakasle moduan betik izan zittuan zeregin eta kargu morduak baztertu barik, harrigarria da ikustia zelako **musika-produkziño aberatsa eta ugarixa** itzi oskun.

Gaurkuan obra horreittako **sail txiki-inportante bateri** erreparauko xaugu: otxotientzako modutu zittuan atal ezagunairi; eta horrekin batera, Oñatiko **Irrintzi** zortzikotiarekin euki eben hartu-emun estuari. **Joxe Mari Arzuaga Lasagabaster** txantxikuarrak (1932-1967) osotutako otxote hau ospetsua bihurtu xakun Euskal Herri darian 1960ko hamarkadan. Iraun eben bittartian ondo-rengo kantarixak pasau ziran talde honetatik aldi desbardiñetan: **Federiko Mendizabal, Joxe Antonio Billar, Nikolas Erostarbe, Felix Arregi, Joxe Otalora, Jabier Letamendi, Julio Ibarrondo, Juanito Arkauz, Manolo Urzelai, Eujenio Kortabarria, Joxe Errasti, Juan Migel Ordoki eta Jerman Aramendi**.

Patxi Madinak Argentinan zala ekin otsan ahots bardiñetarako euskal kankak sortzeiari. Han kaleratu eben 1955ian **Sas-ki-Naski** izeneko liburutxua. Sorta honek hamabi abesti eukan, euretariko asko, batez be, Oñatiko otxotiaren bittartez Euskal Herrixan zabaldu ziranak: adibidez, **Dingilin dron, Beti eskama kentzen, Oles ezkonberriak** edota **Tabernari andrea**. Baiña etzan bakararra izan; ondoren **beste bost kanta-sorta** be gauzatu zittuan, gizonezko zortzikotiak kantaitteko egogixak; horreittako **hiru Irrintzi taldiari eskiñittak**uak, eta beste bat agustiñotako estudiante gaztien artian moldautako **Kaixo** otxotiari. **Berrogei** kantutik gora guztira.

Ezkerreko argazkixan **Irrintzi**ren **hasierako parte-hartzailliak** agerketan xaku Donostiako lehenengo obispua zanarekin, **Arantzazuko pelotalekuan**, 1961-1962 aldera. Ezkerretik eskumara: **Joxe Mari Arzuaga**, zuzendarixa; **Felix Arregi**; **Jabier Letamendi**; **Julio Ibarrondo**; **Nikolas Erostarbe**; **Jaime Font i Andreu**, Donostiako obispua; **Federiko Mendizabal**; **Juanito Arkauz**; **Joxe Antonio Billar**; eta **Manolo Urzelai**.

Eskumako fotografiaxia, berriz, Bilboko **Coliseo Albia** teatruan ataratakua da 1964ko martixaren 19xan, **Irrintzi** Euskal Herriko otxotien II. Lehiaketan **txapeldun** urten ebenian. Ezkerretik eskumara: **Joxe Antonio Billar**, tenorra; **Joxe Mari Arzuaga**, zuzendarixa; **Juan Migel Ordoki**, tenorra; **Nikolas Erostarbe** eta **Felix Arregi**, bigarren tenorrak; **Joxe Errasti** eta **Joxe Otalora**, baritonuak; eta **Jabier Letamendi** eta **Manolo Urzelai**, bajuak.

Harrezkero, majo mobiu ziran kantuan batera eta bestera abeslari oñatiarrok. **Diskuak be grabau zittuain** Bartzelonan, Madinaren obra askorekin. Eta berau bittarteko zala, **Argentina eta Estatu Batuetara fateko asmotan ebiltzenian**, eten latza eta mingarria suertau xaten: 1967ko garagarrrillian, **Joxe Mari Arzuaga** zuzendarixa ezbihar batian Naparruako **Bianan hil zanez**, **Irrintzi** nahikua **umezurtz** geratu zan. Hurrengo urtian Madina laterandarrak musika-lan ederra eskiñi otsan adiskide miñari: **Ildakoen meza, Jose Mari Arzuagaren oroiz** izenekua.

Argazkixak Felix Arregiren fondokuak dira eta guri Iñigo bere semiaren bidez heldu xaku. Argibidiak Xabier Ugartek eta Joxe Antonio Billarrek eskuratu doskue. Milla esker danoiri!

GURE ETORKIZUNA ZAINTZEN JARRAITZEN DUGU

ESKERRIK

bezero eta herritar guztiei

A S K O



Aupa

Aloña

